

Herririk Herri |3|

Guztion Kultur Arteko VIII. Topaketa egingo dabe domekan Landakon

Erreportajea |16-17|

Inguruetan legez, poker partidak modan jarri dira Durangaldean



Berbaz |9|

Asier Jaio: "EAEn dagoen astronomia gela bakarra Durangokoa da"

Aste bi geroago ur edangarria daukie Berrizko sare orokorrean

- > Berrizko Udalak eta Jaurlaritzako Osasun Sailak atzo arratsaldean baimendu eben sare orokorreko ura edatea bi asteko debekuaren ondoren
- > Kutsaduraren arrazoiak oraindino argitu ez dituen arren, informazio gehiago daukienean Udalak herritarrei jakinarazoko deusiela azaldu dabe

3

Kirol instalazio gehiago behar direla dino azterketak

Elorrio• Kirol azpiegituren gainean LKS enpresak egindako azterketaren arabera, herritarren ustez, kirol azpiegiturak saturatuta dagoz. Askotariko kirolezko kantxa eta kanpoko igerilekua eskatzen ditue.

4

Almudena Cid: "Antzezpen mundua probatu gura dot"

KIROLA• Bihar Landako Kiroldegian izango den Euskalgym jaialdira dator gasteiztarra. Orain urtebete pasatxo itzi eban gimnasia erritmikoa. Horren ordezkorik ezingo dauela aurkitu dino, baina gauza barriak probatzen dabil. Film labur batean parte hartuko dau, eta antzezpen eskolak hartzen dihardu.

24

•Durango

Sabin Bilbao EB-Berdean zinegotziak kargua itzi dau

2

•Iurreta

Etxebizitza galduko dabenei eskaintza egin deutse Udalak

7

XX. Haur Literatur Aretoa antolatu dau Berbaro elkarteak

KULTURA• Hogeigarren edizinoa dau aurten Durangoko Berbaro euskara elkarteak antolatzen dauen Haur Literatur Aretoak. Lautikhamabi urtera bitarteko haurren artean irakurzaletasuna sustatzeko helburuz, ipuin-kontalariak, antzezlanak eta erakusketak eskainiko ditue Zaldibarren, Durangon, Elorrioren eta, aurten lehenengoz, Zornotzan. Durangaldeko 5.000 haurrengana helduko dira aurten.

12



Kutsadura Betzuen eta Okan sortu da, azterketen arabera. Ana Dominguez

Dima Golf
PITCH & PUTT
golfa zure neurria!

Hastapen kurtsoa - "Ezagutu Pitch&Putt" : 37 euro
• AZAROAK 22-29 (igandea) - 11:00 / 11:45
• AZAROAK 20-27 (barikua) - 16:00/17:00
(Zelaiara irteera kurtso bietako baton parte hartu dutenentzat - data zehazteke)

Hiruhilabeteko kurtsoa - 120,00 euro
• AZAROAK 22 - URTARRILAK 24 (igandeak) - 10:00 / 10:50

zatoz eta gustora informatuko zaitugu!

DIMA GOLF CENTER Km.38 Dima - Otxandio Errepidea (Dima gunea)
Tif. 94 404 61 47 www.dimagolf.com

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Guztion Kultur Arteko VIII. Topaketa, domekan, Landakon

Harresiak Apurtuz etorkinei laguntzeko koordinakundeak antolatuta

Guztion Kultur Arteko VIII. Topaketa hartuko dau, domekan, Landako erakustazokak. *Mundu bereko auzokideak* lelopean, "eskubideen ukapena, etorkinen kriminalizatzeta eta gaur egungo migrazino-kontrol guztiak salatzea" dauka helburu Harresiak Apurtuz, etorkinei laguntza emoteko GKE-en Euskadiko koordinakundeak, eta, horretarako Durangoko gizarte elkarten laguntza izan dau. Atzeraldi ekonomikoa "atxaki", migrazino-politiken "gogortzeak" sortutako ondorio larriak salatu ditue.

Etorकिनak eskubidedun pertsonak direla autortu gura dabe, jardunaldian, "eta ez gitxi batzuen beharrian ekonomikoen menpeko eskulan soila". Baita Espainiako Zigor Kodean egindako aldaketa "gaitzetsi" be: "Kalean saltzea galazo eta zentroetan bidegabeki eta egoera irregularrean dagozen etorkinenganako errespeturik



Harresiak Apurtuz

ez dau erakusten". Atzerritarren Legearen menpe "guztiz diskriminatuta" bizi diren etorkinen defentsan jarraitzeko asmoa be berretsiko dabe.

Jaurlaritzako Inmigrazino Zuzendaritzako, Aldundiko eta

Udaleko ordezkariak parte hartuko dabe. Aldarrikapen kalejira hasiko da 11:00etan, eta, gero, ekitaldia. Bazkaria egongo da gero, eta, 16:00etatik 17:30era, jarduera folkloriko eta sentsibilizazio tailerrak; Korrontzik jokatu 17:30ean. ■ A.B.

Uribarriko Andra Marik lokala itzi deutso Caritasi

Esklusino egoeran edo arriskuan dagozen herritarrei arreta eskaintzeko, 100 metro koadroko lokala itzi deutso Andra Mariko Uribarriko Tabirako Caritasi. Hitzarmena sinatu dabe basilikako Jose Mari Kortazar parrokoak eta Bizkaiko Caritaseko zuzendari Mikel Ruizek.

Aurretiaz adostutako akordioa formalizatu dabe hitzarmenagaz

Kanpantorrosteta 9ko lokalaren erabilera 2019 arte itzi deusie Tabirako Caritasi, aurretiaz adostutako akordioa formalizatuz; izan be, azken zortzi urtean erabili daben arren, orain horren berarizko gizarte-karitate jardueragaz lotuta geratu da, hamar urterako gitxienez. 2019tik aurrera hitzarmena urtero luzatzeko aukera be jaso dabe. Gizarte eskari edo zerbitzuei buruzko informazinoren bat behar dabenei egingo jake harrera lokalean. Tabirako Caritasen edo Harrera, Ekorropa, enplegu edo sentsibiltate zerbitzueta-ko bolondresen batzarrak be egingo ditue bertan. ■ A.B.

Zinegotzi kargua itzi dau EB-Berdean Sabino Bilbaok

2003tik dihardu udal ordezkari lez, eta 2007tik Euskal Fondoan Durangoko ordezkari be bada

Sei urte eta erdian EB-Berdean ordezkari moduan jardun dau zinegotzi lanetan Sabino Bilbaok, halan be, "lan arrazoiak" medio kargu hori iztea erabaki dau. Asteon aurkeztu dau ardura hori izten dauela dinon idatzia udalbatzarrean. Bilbaok *Anbotori* argitu deusanez, "hasitako lan barriak ez deust izten zinegotzi moduan ditudan egin beharrei behar den moduan aurre egingen". 2003tik gaurdaino Udalean egin-



dako bideari "oso positiboa" deritzo, "bai arlo pertsonalean bai politikoan". Aitatu daigun 2007tik Euskal Fondoan Durangoko ordezkaria be badela 2007tik.

Lotzeko gairik itzi dauen galdetuta, Landakoko haurtzaindegia aitatu dau Bilbaok: "Baina, EB-Berdeak, Aralarrek eta Gobernu Taldeak akordioa lotu dogu eta ia 2010ean lanak hasterik dagoen. Baina, pozik nago bideratutako dagoen gaia da-eta". Nabarmendu dau Udalean sartzean, haurtzaindegi publikoak sortzea izan zela helburuetako bat. ■ A.B.

Hasitako lan barriak udal jardunerako denporarik ez deusala izten dino Bilbaok

Kargua izten dauela dinon idatzia asteon aurkeztu dau udalbatzarrean

Eztabaida "faltsua" deritzo Aralarrek EAJk proposatukoari

PPk 17 hobari aurkeztu ditu arau fiskaletarako

Zabor eta estolderia, TAOa eta ibilgailuak gordailura eroatea-gaitiko tasak %2 igotzea proposatu dau Aralarrek, zerbitzuok %100 ordaintzera heldu arte. Baldintza horren menpe jarri dau Gobernu Taldeak 2010eko zerga eta tasak izozteko proposamena.

Eztabaida "faltsua" deritzo EAJrenari: "tasetan marjina handiago daukagu, eta gure zabor eta ibilgailuetaz dihardugu. Atxakia populista da krisi egoera, eta ez da kudeaketa on baten eredu".

Aralar: "Eztabaida faltsua da EAJrena. Atxakia populista da krisi egoera; ez da kudeaketa on baten eredu"

Ibilgailuen gaineko zerga oinarria CO2 isurketen arabera-koa izan daiten Aldundiari proposamena egitea be eskatu dau, eta proposatu jasotako hobariak herritarrei "didaktikoki" helaraz-

tea. Halan be, Aralarren zuzenke-ta batzuk jaso egin ditu EAJk; adibidez, zabor eta estolderiaren gane-ko tasan hobaria gitxieneko solda-ta interprofesionala baino 1,5 bider gehiago kobratzen dabeneztat.

"Hobariak behar dira"

PPren "gitxienei" bideratutako 17 hobarietatik lau jaso ditu EAJk. Durangoko krisi ekonomikoa "asko" sufritzen dauela-eta, zerga eta tasak izoztea ez da nahikoa PPrentzat, eta hobariak behar dira, "ahal den neurrian durangar askoren zama ekonomikoa leuntzeko". Gitxienei ez eze, mugabako kontratuekin andren enplegua sustatzen dabenei, edo etxean, ibilgailuan, enpresan edo auzo komunitatean ingurumena hobetzeko politiken alde egin dabenei lagundu gura deutsee. ■ A.B.

"Gitxienei" bideratutako PPren hobari guztietatik lau jaso ditu EAJk



Ana Dominguez

Txakur erakustaldiak 4.000 lagunetik gora batu zituen Landako Gunean

Bizkaiko Txakur Elkarteak antolatutako Bilboko II. Nazinoarteko Txakur Erakustetak 4.000 lagunetik gora batu zituen Landako erakustazokan. Ia 900 txakur (200 arraza inguru) lehiatu ziren, eta Erakustetako Txakurrik Onenaren saria Segoviatik (Espainia) ekarritako Siberian Huski batek lortu eban. Euskadi-Nafarroa Txapelketako sariak be emon zituen Durangon. Europako hainbat herrialdetik hurreratutako txakurrak batu ziren.



Atzeratu egin da deklaratzera joateko deia

Intxaurre kultur elkarteko zazpi juntakide Audientzia Nazionalen deklaratzera deituta egon dira, barikuan, azaroaren 13an. Atzeratu egin dabe, baina, dei hori, jakin eragin dabenez, eta ez deuse argitu noiz joan beharko daben. Guardia Zibilak 2007an egindako miaketan harira egon dira deituta juntakideak, eta "talde terroristako kide" izatea leporatzen deuse, joan zen astean egindako agerraldian argitu eben lez.

Guardia Zibilak 2007an egindako miaketan harira egon dira deituta Intxaurre elkarteko zazpi juntakide

Ez dabe zehaztu zer egunetara atzeratu deuseen deklaratzera joateko deia

Intxaurre elkarteak 20 urtetik gora daroazela "herririk eta herriarentzat lan egiten" nabarmendu eben, eta "traba guztien gainetik Durangoko ezkertiar eta abertzaleen bilgune" izaten jarraituko dauela be bai. ■ A.B.

Harrera ona izan ei dau Kurutze Santu Museoak

Kurutze Santu Museora antolatutako bisita gidatuetan 2.740 lagunek parte hartu dabe; gizonak izan dira %46,5 eta emakumeak, barriz, %53,5. Durangarrak izan dira %95,4; EAEkoak %3,6. Irailaren erdialdetik urria amaitu arteko datuon balorazio "oso positiboa" egin dau Gobernu Taldeak. Bisitarien artean %52,4 jente heldua izan da; %9,1 umeak.

Orain Kurutziazako Kurutzearen gaineko egitasmo museografikoa hartu daian prestatzen dabilz, eta, dinoenez, hiru hilaren barruan egongo da gertu museo osoa. 1440. urtean Alonso de Mella frailea Durangon Fraticelloen talde heretikoa hedatzen saiatu ondoren Inkisizinoak hainbat durangar erre zituenekoa gogoratzen dau kurutzeak. Krimenaren Historiaren Zentroko VII. Mahai-inguruen lehenengo saioak Kurutze Santu Museoan egin ditue. ■ A. B.

Hiru hilean prest izan gura dabe Kurutziazako Kurutzearen gaineko egitasmo museografikoa

BERRIZ

Osasun Sailak eta Udalak atzo arratsaldean baimendu eutsen sare orokorreko ura edatea orain aste bitik debekatuta zeukien Berrizko biztanleen erdiei. Kutsaduraren sorburua guztiz identifikatuta dago, eta, eremu haretako emaria moztu eta deposituak eta hodieriak garbitu ondoren, beste iturburu batzuetatik bideratu dabe ura. Halan be, auzia ez da amaitu Udalarentzat: "Zergaitia jakin arte ikertzen jarraituko dogu", adierazi eban Jabier Azpitarte alkateak.

Ikerketek erakutsi dabenez, kutsatutako ura Betzuen eta Oka arteko hodierian (kilometro bat ingurukoa) dago non edo non. Puntu horretan jasotako laginek baimendutako kopurua "askogaitik" gaintzen dabe, alkateak jakinarazi dauenez. Oiztik Betzuenerainoko kilometro bietako datuek be positibo emoten dabe, baina askoz maila baxuagoan.

Arrazoiak argitzean, baleiteke herri-batzarra deitzea gertatu denari eta udal gestinoari buruzko argibideak emoteko

Sareko puntu hori itxita, beste gune batzuetatik hasi ziren ura bideratzen. Harrezkero, egunero analisatu dabe ura. Martitzenean, tren geltoki inguruko datuak onak izan ziren; Udaletxe inguruko laginek baimendutako kopurua apur bategaitik gaintzen eben. Eguazteneko eta atzoko emaitzak puntu bietan ontzat emon ditue.

Kutsaduraren arrazoiak zehatz jakiten direnean, horri buruzko eta "Udalak kontu hone-

Atzotik, berriztar denek edan leikei sare orokorreko ura

"Arrazoiak argitu arte ikertzen jarraituko dogu", dinoe udal arduradunek



Betzuen-Oka tartea itzi eta beste deposituetatik bideratu dabe ur-hornidura.

tan izan dauen gestinoaren gaineko argibideak emoteko" herri-batzarra deitzea proposatu eban Karmen Amezua zinegotziak eguazteneko udalbatzarrean. Azpitartek komunikatu bat ateratzeko asmoa bazegoela azaldu

eban, baina, egoki eritziz gero, biak egin daitekezela.

Berriztarren artean kutsaduraren jatorriaz zurrumurruak dagoz. Alkateak dinonez, baina, sorburua Berrizburun zegoen zabortegia izatea "ezinezkoa da;

positibo emon daben gunetik oso urrin dago". Egur mozketek eragindakoa izatea be ez dago argi: "Sustantzia kutsagarriak beroa behar baitau uretan disolbatzeko". Eragilea gasolina edo gasoleo izatea be "ia guztiz baztertu" dabe. ■ J.D.

Berdintasun kontseiluen sorrera eta garapena aztergai, bihar

Kultur Etxean eskainiko ditue hiru hitzaldiak, 11:00etatik aurrera

Udaleko Berdintasun Sailak berdintasun kontseiluak ezagutzera emoteko jardunaldiak antolatu ditu, biharko. Berdintasun kontseilua zer den, zer funtzino betetzen dauen eta zer eragin daukan azaltzeko topagunea izango da.

11:00etan hasita, Kultur Etxean, herrietako erabakitze-guneetan emakumeen parte-hartzea zein izan daitekeen azalduko dabe, beste herri batzuetako esperientzia jasota.

Hiru gonbidatu etorriko dira berdintasun kontseiluen gaineko azalpenak emotera. Eva Saenz Ugarte berdintasun teknikaria da, eta prozesu parte-hartzaileetan esperientzia zabala dauka. Femi-

Basauriko Emakumeen Elkarteko eta Durangoko Bilgune Feministako kideek azalpenak emongo ditue

Eva Saenz Ugartek kontseiluak zer diren, non dagozen eta zelan funtzionatzen daben azalduko dau bihar

nista eta kooperantea be bada. Berdintasun kontseiluak zer diren eta zein herritan eta zelan funtzionatzen daben azalduko dau, beste hainbat konturen artean. Basauriko Emakumeen Elkarteko kideak dira bigarren gonbidatuak. Basaurin badaukie berdintasun kontseilua eta elkarte horrek han parte hartzen dau. Hango esperientziaren barri emonez, elkartearen sorrera, lorpenak eta erronkak izango ditue hizpide.

Azkenik, Durangoko Bilgune Feministako kideak be etorriko dira Kultur Etxera. Erakunde publikoeran parte hartzearen alde onen eta txarren gainean jardungo dabe, besteak beste. ■ J.D.

Bortizki jokatzan daben nerabeak zelan tratatu

Udaleko Gizarte Zerbitzu Sailak jokabide bortitzeko nerabeekin zelan jokatu argitzea helburu dauen jardunaldiak antolatu ditu, hilaren 19rako, 09:00etatik 13:45era, Kultur Etxean. Ekimena modu batera edo bestera nerabeekin kontaktuan egon ohi direnei zuzenduta dago.

09:30ean, Iosu Gago psikologoak gaiaren gaineko azalpen teorikoak emongo ditu. 11:30ean, mahai-ingurua egingo dabe hainbat elkarte: Berritzeguneko Joseba Ibarra, Sonia Vegas (Aldundiko Gizarte Kintza Sailekoa), Ana Berta Jara (psikiatra espezializatua), Serafín Martín (Talde Psikosozial Judizialeko psikologoa) eta Ianire Estébanezek (genero biolentzian aditua) batuko dira. ■ J.D.



ELORRIO

Kirol instalazino gehiagoren premina adierazo dabe herritarrek

Herritarren eskaeretako bi askotariko kiroletarako kantxa eta kanpoko igerilekua egitea dira

Udalak herriko kirol azpiegituren eta ekipamenduen gaineko azterketa esleitu eutsan LKS enpresari, orain hile batzuk. Horreek instalakuntzak aztertzeaz gainera, inkestak egin ditue federatutako taldeen, eskola kirolean dabilzenen eta beste-lako erabiltzaileen artean, eta datu horrekin guztiekin osatutako txostena amaituta dago dagoeneko.

Norbanako erabiltzaileek kirol azpiegiturak saturatuta dagozela nabarmendu dabe

Kirol azpiegiturak modu batera edo bestera erabiltzen ditueen askotariko eskakizunak ditue. Esaterako, hainbat izan dira kanpoko igerileku baten premina adierazo dabenak; horregaz lotuta, barruko igerilekua handitzeko beharra be azaldu dabe.

Horrez gainera, askotariko kiroletarako kantxa gitxi dagozela dinoe askok. Azken urteetan

federatu bakoen kirol praktika hazi egin da, eta, ildo horretatik, federatu bakoen kexa bat hauxe da: federatutako taldeek eta eskola kirolekoek azpiegiturak betetzen ditueela eta gainerakoek ez daukiela tokirik.

Azterketatik Udalak atera dauen ondorio bat da herriko kirol azpiegiturak sakabanatuta dagozela, eta horrek denen arteko koordinazioa eta kudeaketa asko gaxten dauela. LKSk askotariko alternatibak proposatu ditu. Horreetako bat azpiegiturak gune berean kontzentratzea da; eta kiroldegia handitzea edo berri bat egitea be proposatu dabe, igerilekua ondoan gehituz.

Orain alderdi bakotzak azterketaren gaineko bere hausnarke-ta egingo dau, eta gero batzordeetan tratatuko dabe. ■ J.D.

Kirol instalazinoen sakabanaketak koodinazio orokorra zailtzen dauela da ondorioetako bat

Hiri antolamendurako plana noizko den galdetu dau EAJK

Bere sasoiaren plana ez aurkezteko ipinitako arrazoiek orain ez daukiela funtsik salatu dabe

Joan zen asteko udalbatzarrean, EAJK barru galdetu eutsan Gobernu Taldeari hiri-antolamendurako plan orokorraren gainean. Larregi atzeratzen dabilela deritzoe, eta "mahai gainean noiz ikusi" ahal-ko daben galdetu eben.

Ana Otadui EAJko zinegotziaren esanetan, atzerapena justifikatzeko arrazoi bi ipini zitueen bere sasoiaren. "Batetik, planaren zenbait dokumentu falta zirela esan zenuen, baina badagoz derrigorrez-

koak diren dokumentu batzuk eta beharrezko ez diren beste batzuk. Kasu honetan, falta zirenak ez ziren beharrezkoak. Bestetik, aldaketaxo batzuk egin behar zirela be argudiatu zenuen, eta pentsatzen dogu denpora nahikoa egon dela aldaketa horreek egiteko".

Niko Moreno alkateak "lanean badabilzela" erantzun eban, eta ez doala eperik zehazten: "Prest dagoela erizten deusagunean aurkeztuko dogu".

Mari Carmen Muñoz PSE-EEko zinegotziak planari buruz ezer aurreratu daiken galdetu eutsan Gobernu Taldeari, eta Niko Morenok ezetz esan eutsan: "Foro honetan ez". ■ J.D.

Niko Moreno: "Ez goaz eperik zehazten; prest dagoela eriztean aurkeztuko dogu"



Kiroldegia txiki eta zaharkituta geratu da, udal arduradunek adierazo dabenez.

Zabor bilketaren eta ibilgailuen gaineko tasak igo egin ditue

2010eko ordenantza fiskalak onartu ditue azken udalbatzarrean EAJK, Ezker Abertzaleak eta EHAK

Ezker Abertzalearen, EAJren eta Elorrioko Herritarren Aukeraren aldeko botoekin onartu ditue datorren urterako ordenantza fiskalak. PSE-EEK kontra bozkatu eban. Tasa eta zergarik gehienak izoztu egin ditue. Igoera bakarrak zabor bilketaren zerbitzuan (%5) eta trakzinodun ibilgailuen gainekoan (%3) ezarri ditue.

Horrez gainera, langabetuendako hobari batzuk onartu zitueen Udalak eskaintzen dituen hiru zerbitzutan. Hain zuzen be, dantza ikastaroan, emakumeen eskolan eta gurasoen eskolan %50eko laguntza izango dabe langabetuek.

Mari Carmen Muñoz: "Urte kritikoa bizi dogu, eta administrazino publikoek solidarioak izan behar leukie"

Zabor bilketan emondako igoerari buruz, Niko Morenok gogoratu eban "azken zortzi urteetan KPIa baino 6,5 puntu gitxiago" igo dela. Beste helburu bi be gaineratu zituen: "Batetik, herritarren poltsikoei ahalik eta

gitxien eraginez gaur egun daukaguzen zerbitzuak bermatu gura doguz. Bestetik, Udalkutxatik jasotako kopurua %5 jaitsiko denez, Udalaren gaitasun ekonomikoa ez larritzea dogu helburu".

EAJK bere aldeko botoa arrazoitu eban. Igoera horrek 30.000 euro inguruko sarrerak ekarriko dituela eta "kopuru hori etorkizunerako bermatuta" egongo dela adierazo eban Ana Otadui. Era berean, "herritarrei eskutatako esfortzuak gure partetik kontrapartida bat izan behar dau", azpimarratu eban: "Zorrotz jokatut behar dogu aurrekontuetan".

PSE-EEK kontra egin dau

Mari Carmen Muñoz PSE-EEko zinegotziak ordenatzen fiskalen kontra bozkatu eban. Trakzio-dun ibilgailuen gaineko igoera "lekuz kanpo" dagoela adierazo eban, askok "lanerako erraminta gisa" erabiltzen dauelako.

Zabor bilketaren inguruan, zerbitzuak ez leukela igoerarik izan behar adierazo eban: "Urte kritikoa bizi dogu, eta administrazino publikoek solidarioak izan behar geunke". ■ J.D.

GARAI

Internet eta informatika ikastaroak

Internet eta informatika ikastaroak izango dira, Garain, datozen asteetan. Urkiola Landa Garapenerako Elkarteak eta Dinamizatic Ruralek antolatut ditue ikastarook, eta herriko KZgunean eskainiko dira.

Azaroan eta abenduan izango da aukera ordenagailuak erabiltzen ikasteko; baita interneten nabigatzen be. Oinarrizko gaien azalpenetan parte hartu ahal izango da, eta bi orduko mintegietan banatuta garatuko dira. Gainera, klaseak goizez ala arratsalde hartzea aukeran egongo da, eta begiraleek jarraipena eskainiko dabe.

Oinarrizko gaien azalpenetan parte hartu ahal izango dabe, eta bi orduko mintegietan banatuta garatuko dira

Orain arte egindako esperientzietan ikastarook harrera ona izan dabe, udal ordezkarien arabera. Informazino gehiago telefono honetan: 94 620 36 11.

Klaseak goizez ala arratsalde hartzeko aukera izango dabe ikasleek

GAER DESINFEKZIOAK
Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...
Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

BILBAO ASEGURUAK | Bilbo CATALANA OCCIDENTE
Jabier Ruada

EKODEN

HORTZ KLINIKA



Arkotxa, 4 etxabea
DURANGO
Tel. **94 621 78 22**

*Hortz-protezia mugitzen bazaizu,
inplanteen bidez hezurrera
finkatzeko tratamenduak jartzen
ditugu zure eskura*



*Ortodontzia-
tratamenduak,
marruskadura
txikiko braqueten
bidez, urte betean*


mutualia ko **Itunpeko
Klinika**

% 5 ETIK 10 ERA
A R T E K O
BEHERAPENAK
H O R T Z -
INPLANTEEN
TRATAMENDUETAN

**Zure tratamenduak 12 hilabetetan
finantzatzen ditugu, interesik gabe**

Kontsultatu gure tarifak hemen:

www.clinicaekoden.com

harritu egingo zara

ABADIÑO

Emakumeen kontrako indarkeria gaitzesteko eguna

Gazte abadiñarrak emakumeenganako indarkeriaren kontra kontzientziatzea da helburu aurten

Azaroaren 25ean den Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko eguna "ez daigun ahaztu", azaroaren 13tik azaroaren 27ra arte izango den egitaraua aurkeztu dabe Maite Blanco Udaleko teknikariaketaArgiAbad zinegotziak.

"Puntu morea" sinboloagaz eta *Beldurrik barik* lemagaz gizarteratuko daben kanpainaren barruko lehenengo ekitaldia, gaur iluntzeko *Amazonas, mujeres indomables* dokumentalaren aurkezpena izango da: Maria Galindo

zuzendari kolonbirra etorriko 19:00etan filma Errota kultur etxean aurkeztera.

Batez be, gazte abadiñarrak emakumeekiko indarkeriaren kontra kontzientziatzeko helburuagaz, antzerkia, autodefentsa ikastaroa, sexualitate tailerra eta argazki erakusketa izango dira datozen bi asteetan. ■ I.E.

Azaroaren 13tik 27ra arte izango dira 'Beldurrik barik' kanpainako ekitaldiak



Argi Abad zinegotziak eta Maite Blanco teknikariak emon dabe ekitaldien barri. I.E.

AHTaren lanek abadiñarrei eragiten deutseezen trabak

Eguaztenean bildu dira Abadiñoko Navarro eta Durangoko Irigoras alkatea gaiari buruz aritzeko

Abiadura Handiko Trena eraikitzeke Durangon egiten dabilzen lanek eragiten daben zaratariburuz Mendiolako auzotarrek Abadiño-ko Udalean egindako salaketa eta Udaleria helarazitako idatzia dago eguazten honetan Durango eta Abadiño-ko alkateek egin daben batzarraren jatorrian: trena erai-

kitzeko lanetan, gauez eta gehiegizko zarata eraginez dihardueela salatzen dabe auzotarrek. Eguazteneko batzarrean, Mendiolako auzotarren salaketa helarazi deusola Aitziber Irigoras Durangoko alkateari azaldu deusku Talde Independenteko alkateak. "Egoera berezia da Durangon tunela egi-

teko obretan sortu den eta Abadiño-ko pairatzen den zarataren auzia", nabarmendu dau Navarro Abadiño-ko alkateak.

Gauetz lanean ete dabilzen eta abadiñarrek jasaten daben zarataren jatorria Durangoko lanetakoa den aztertzeke konpromisoa hartuko dauela agindu ei dau Aitziber Irigoras Durangoko alkateak, Navarrok azaldu dauenez.

Beharrezko azterketak egin eta udal bien arteko bigarren batzar baterako deialdia egingo dabela jakinarazi deusku Abadiño-ko alkateak, "hartu beharrekoneurriak zehazteke", bere berbetan jaso dogunez. ■ I.E.

Navarro: "AHTaren tunela egiteke Durangoko obretan sortzen da gauez auzotarrei traba egiten deutsan zarata"

Zarataren jatorriari buruz egin beharrekoneurriak egin eta bigarren bilera bat egiteke konpromisoa hartu dabe

OTXANDIO

Bizkaiko Bira egitera, Miru Gainen eskutik

Bizkaiko Biraren hurrengo etapa egitera abiatuko dira, asteburuan, Miru Gain mendizale elkarreke kideak. Goizeko 08:00etan autobus geltokian daukie zita Ordunte-Balmaseda ibilbidea egitera joateke. Bidean, Koltza tontorra be igo beharko dabe.

Duela urte batzuk ekin eutsan elkarreke Bizkaiko Bira-ko etapak egiteari. Urtean etapa bi egiten ditue; bata udabarrin eta bestea udazkenean. Lehenengo ibilaldia Otxandiotik irtenda antolatu eben. Kostaldea zeharkatu dabe dagoeneko, eta "bueltan" datozela azaldu deusku: "Ibilaldi politak izateaz batera, egun-pasa joan eta Bizkaia ezagutzeko aukera izaten dogu", adierazo deusku Mari Tere Larrañaga Miru Gaineko kideak.

Orduntetik irten eta Balmasedara joango dira Bizkaiko Bira-ko hurrengo etapa honetan



Ana Dominguez

Kirolgune barria inauguratu eben asteburuan Muntsaratz auzoan

Eguraldia ez eben lagun izan, joan zen asteburuan, Muntsaratz auzoan antolatu eben kirolgunearen inaugurazio ekitaldian. Halan be baina, auzotar askok ez eben hutsik egin, eta aldamenean ikusgai dogun familia argazkia egin eben, besteak beste, domeka goizean. Auzoko elkarrearen lokalean luntxa izan eben joan zen domeka eguerdian.

Auzotarrek osatutako zazpi talderen futbol partiduak zitueen aurreikusita, osotara 90.000 euroko aurrekontua izan daben kirolgunearen inauguraziorako. Futbola, saskibaloia, tenisa, hockeya zein beste hainbat kirol egiteke apropos egokitu dabe lehenago saskibaloirako jokalekua zena.

GALDERA:

Gasteizko zein gimnasta ezagun elkarrizketatu dugu aste honetako alean?

Izena: _____

Tel.: _____

Makatzeta jatetxerako lagun birendako afari-txartela zotz egingo dogu.

Bialdu erantzunak: Santa Ana, 6 Durango edo asteakaria@anboto.org helbideetara, Hiruaren azken alean agertuko da irabazlea.





IZURTZA

Datorren urteko aurrekontua adosteko udalbatzarra

Gobernuaren aurrekontu proposamena bozkatu eta eztabaidatuko dabe gaurko udalbatzarrean

Urtarrietik aurrera Udalaren egitasmo nagusiak finantzatuko dituen aurrekontuaren proposamena eroan dau Gobernu Taldeak gaur eguerdiko udalbatzarrerara. Osotara, 670.000 euroko diru eragiketarako aurreikusitako diru Gobernu Taldeak aurkeztutako proposamenak.

Osotara, 670.000 euroko diru eragiketarako aurreikusitako diru Gobernu Taldeak aurkeztutako diru proposamenak

Babeseko etxebizitzak eraikitzeko lur kalifikazioa aldatzeko prozedurak eroango dau kopururik handiena

Igazkoagaz alderatuta, Lorea Muñoz alkateak proposamenari buruz azaldu deuskunez, Foru Aldundiaren aldetik jasotako diru-laguntzen murrizketa aintzat hartuta, Udalaren aurrekontu oroko-

rra be egoera ekonomikora moldatzeko beharra ikusten dau Gobernuak. Aurrekontu proposameneko kopuruak igazkoak baino apalagoak dira, beraz, eta, "urtean zehar bestelako egitasmoak finantzatzeko diru-laguntzak lortzeko aukera sortuko balitz, kasuan kasuko azterketa" egingo leukela azaldu dau alkateak.

Inbertsinoetarako

Datorren urtean gauzatuko leukiezen inbertsinoetarako 212.000 euro bideratzea jasotzen dau Gobernu Taldearen proposamenak: babeseko etxebizitzak eraikiko dituen lursailaren kalifikazioa aldatzeko prozedura bideratzea diru kopururik handiena aurreikusitako diru proposamenak. Hain zuzen, gaur eguerdiko udalbatzarrean aurrekontu proposamenari buruzko eritziak emateko aukera izan dabe udaleko talde biek.

Aurrekontuak onartzen bizkorren ibili zen Udaletxea izan zen Izurtzakoa igaz, eta aurten be herri horretan aurkeztu dabe proposamena inon baino lehenago. ■ I.E.

IURRETA


Etxea galduko dabenei bide "arrazoizkoa" eskaini guran

Gehienezko prezio indizean eskainiko deutsee bizileku tasatua Paduretan

Padureta hirigintza egitasmoaren baitan etxebizitza galduko dabenei hamar familiek etxe barria eskuratu ahal izateko gehienezko prezio indizea zehaztu dau Udalak: babesekoen prezioaren gainetik 1,1 puntu gorago, besteen prezioaren azpitik. Auzokideei irtenbidea emateko "objektiboki arazoizko" diren baldintzak zehaztu gura izan ditue. Ekipamenduraikina eta 300 etxe eraiki gura ditue, eta 61 dira tasatuak —babesekoen prezioetik 1,7 gora—; 30 Udalaren jabetzakoak. Azken horreetariko hamar jarriko dira auzokideen esku.

Iñaki Totorikaguena alkatearen berbatan, "epe laburrean" auzokideekin negoziatzeko hasiko ditue

Epe laburrean, Iñaki Totorikaguena alkatearen berbatan, auzokideekin negoziatzeko hasiko ditue Udalak eta etxebizitzaren sustatzaileak: "Gai gogorra da, eta Udalak ahalegin handia egin dau hori garatzeko eta etxe-aldatzea errazteko, prezio arazoizkoan". Udalak 800.000 euro gitxiago batuko ditue etxeon gaitik, alkateak zehaztu daue. Beste bide batetik bideratuko da etxea galtzeagaitiko kal-



Paduretan 61 etxebizitza tasatu egitea aurreikusi dabe. A.B.

te-ordaina: "Beharrik zengenduen arren, enpresa sustatzaileenaz aparte balorazio bat egin dogu, ordaina bibidertuz, eta jaso daien borrokatuko dogu".

Hainbat sustatzaile dagoz 2001eko Arau Subsidiarioetan jasotako proiektuan. Tasatuetarako hitzarmena, barriz, 2006an lotu eban Udalak. ■ A.B.

MALLABIA

Zelai II.a Argentinako Euskal Etxearen ospakizunetan

Bahia Blancako Euskal Etxearen 110. urteurreneko ospakizunetan parte hartu dau aizkolariak

Jesus Gisasola "Zelai II" aizkolaria pozik eta harrirituta etorri da Argentinan, Bahia Blancan, ikusi dabene giroagaz. Euskal Etxearen 110. urteurreneko ospakizunetan izan dira, Zelai aizkolaria mallabitarragaz batera, Euskal Herriko herrikiroletan eta bestelako ekitaldietan parte hartzen dabene hainbat izen ezagun: Bihurri, Flores eta Agite aizkolariak, Ostolaza harrijasotzailea, Urko kantaria, Pitxin eta Potxin pailazoak, eta Laket musika taldea.

Argentinako gazteek, batez be, euskal nortasunari eusteko erakutsi dabene indarra azpimarratu gura izan dau Zelai, bidaiaren barri emoterakoan. Bigarren belaunaldia izan arren, euren izpirituaren "bizitasuna" eta gazteek parte hartzeko daukien "gogo" nabarmendu ditue. Bizipen horren adierazle, bi adibide jarri ditue: "Euskal Etxean 22 urte gaza dantza-

riek erretiratu egin behar izaten dabe, atzetik gazteak bultzatuko ditue elako". Patagoniako neska baten kasua be kontatu deusku Zelaiak: "Neska honek barikuro 300 bat kilometro egiten ei ditue eskara eta dantza ikastaroak egin ahal izateko".

Bestalde, Zelai bere harridura erakutsi deusku, jentea hain "prestatuta" egonik eta herri hain "aberatsa" izanik zelane dagozen ikusita, "ez aurrera ez atzera", euren herrialdea aurrera ateratzeko. Bere berbatan, "bidaiaren honetan nabari geratu dau jentek politikoezag daukan mesfidantza". ■ P.M.

Argentinako gazteek euskal nortasunari eusteko daukien indarra azpimarratu dau Zelai aizkolariak

ATXONDO



Eguazten goizean batu ziren San Martin Eguna ospatzeko Martzaa auzoan. Iban Gorriti

Martzaan eta Apatan, ospakizun egunak asteen

San Martin eta Don Martin egunak ospatu ditue

Eguaztenean Martzaan eta martitzen arratsaldean Apatako frontoian batutakoek ospatu zituen San Martin eta On Martin egunak. Eguazten goizean, ohiturak agintzen dauenez, Martzaako Martin Deunaren elizpean

Orain 18 urte berreskuratu eben On Martin Eguna: txorizo dastaketa eta umeentzako jolasak izan dira aurten

batu ziren auzotarrak: meza nagusia lehenengo eta musikagaz giro-tutako luntxa izan eben ondoren. Azaroaren 13rako, bestalde, auzoko jubilatuen bazkaria be izan dabe auzotarrek hitzordua.

Apatan, barriz, martitzen arratsaldean egin zitueen On Martin eguneko ospakizunak, eta herritar ugari batu zen Udalak antolatutako hitzordura: jolasak izan ziren, 17:00etatik aurrera, eta txorizo dastaketa be bai frontoira gerturatutakoentzat, orain 18 urtetik berreskuratutako ohituran. ■ I.E.

ZALDIBAR

Santamañezar ingurua mantentzeko lanak

Zaindu beharreko 24 arbola zerrendatu ditue

Orain urtebete, igazko azaroan, onartu eben udalbatzarrean, aho batez, Santamañezarreko tontorra eta inguruak Udalak erostea; lursaila publiko bilakatzeko, 27.000 euro ordaindu zituen Udalak.

Urtebete geroago, herritar talde bat aritu da urri amaieran Santamañezar inguruko zaindu beharreko bertako zeharretan zerrenda egiten: mantendu eta zaindu beharreko hamalau arbola zerrendatu ditue. Ondoren, bertako arbola gehiago landatzen laguntzeko deialdia egingo deutsee zaldibartar guztiei, Mendiolarai alkatearen berbatan jaso dogunez, "guztiona den ingurua zaintzeko konpromisoa hartu daien herritarrek

bultzatu gura dogu". Herriaren ingurune naturala auzolanean zaintzea lako "ohitura onak" mantentzearen garrantzia azpimarratu dau alkateak. ■ I.E.

Urri amaieran aritu dira 16 lagun zaindu beharreko arbolen zerrenda egiten

Mendiolarai: "Herritarrek guztiona den ingurua zaintzeko konpromisoa hartu daien bultzatu gura dogu"

MAÑARIA

2010erako proposamen kulturalak

Datorren urtean zehar Udaletik eta diru publikoagaz finantzatu diren ekitaldi kulturalak hautatzeko herritarren parte-hartzea bultzatuko dabe Udaletik. Herritarren interes eta eskarien arabera kultur ekimenak antolatzea 2010ean zehar, horixe da asmoa. Mañariarrek eurek egindako proposamenetan oinarritutako ekimen kulturalak programatuz, herritarren parte-hartzea gehitzea dabe helburua.

Aste kulturalerako, jaietarako edo Gabonetarako zer ekintza gurago ditueen, eta berbal-di, ikastaro eta ikuskizunei jago-kenez be herritarrek eurek euren interesen barri Udaletxera edo Liburutegira helarazteko deia zabaldu dabe. ■ I.E.

DURANGALDEA

Larri zauritutako bi eta hildako bat eskualdeko bi auto istriputan

Auto istripu larri bi gertatu dira asteen Durangaldeko errepideetan. Martitzean goizeko 6:45ean, N-636 errepidean, Atxondo parean auto bik elkar jo eben, eta gazte bi larri erotan zitueen Galdakaoko erietxera. Istripua gertatu zen lekuan auto ilara luzeak sortu ziren goizean.

Mallabian, eguaztenean goizeko 09:00etan, Trabakuko gainean gertatutako istripuan lagun bat hil zen. Ertzaintzaren iturriek jakitera emon dabenez, BI-633 errepidean, Durangorako noranzkoan, furgoneta batek eta auto bik talka egin eben. Istripuan furgonetan zihoan pertsona hil egin zen, eta beste bi lagun zauritu ziren. Trafikoa Ermutik bideratu eben.

IURRETA

Etorkin bat kamioi azpian

Etorkin bat Irlandatik zetorren kamioi baten azpian topatu eben martitzenean, A-8 autobideko ordainlekuan, Iurreta parean. Jakitera emon daben arabera, halako baten pertsona baten oihuak entzutea iruditu jaken bertakoei, eta laster konuratu ziren halan zela. Izan be, kamioiaren azpian pertsona bat zegoen hotzez dardarka, hipotermia sintomekin. Ertzaintzaren arabera aurkitu eben mutilak ez zeroan dokumentaziorik eta magrebtarra da. Poliziaren esku itzi dabe.

ELORRIO

Hainbat ekitaldi Berrio-Otxoa jubilatuek elkartearen kultur asteen

Datorren asteen ekitaldi ugari antolatuko ditue Berrio-Otxoa jubilatuek elkartean, kultur asteen dela-eta. Astelehenean, elkarteko kideek egiten ditueen irteera eta ekitaldietan ateratako argazkien erakusketa ikusgai izango da Aldatzekuan. Arratsaldeko 16:00etan, tentsioa hartzeko aukera izango dabe. Martitzen arratsaldean, Sortzez Garbiaren Basilikaren gaineko berbaldia eskainiko dabe. Musika izango da nagusi egunean, 17:30ean, Agustin Garamendi musika eskolako ikasleen eskutik. Barikuan, arratsaldeko 15:00etatik 17:00etara bertaratzaren diren jubilatuek kontsumizino bat doan izango dabe.

DURANGO

Dantzaldiak antolatu ditue Landako polikiroldegian



Kepa Aginako

Durangoko Udaleko Adineko Sailak dantzaldiak antolatuko ditu, azaroaren 15etik aurrera, Landako polikiroldegian. Dantzarako gogoia daukien nagusi guztiek Landakon izango dabe zita domekara, 18:30etik 20:30era. Udan be Ezkurdin haizetara antolatzen ditueen dantzaldiek arrakasta handia izaten dabe Durangon. Kiosko ingurua jentzez gainezka egoten da, udako domeka arratsaldeak dantza eginez pasatzeko. Bakarka zein bikotean pasodoble eta gainerako dantzetan bakotzak daukan trebezia erakusteko hurrengo aukera domekan izango da.

BERBAZ >



Kepa Aginako

Asier Jaio •

- ▮ Izarra astronomia elkarteko kidea
- ▮ 24 urte

“Zerua irakurtzen irakasten dogu bisita gidatuen bitartez”

Durangoko Izarra astronomia elkarteak gai honi buruzko jakintza zabaltzea dau helburu

Zerura begiratzeko gonbita egin deusku Izarra elkarteak Astronomia Gelara antolatu dituen bisita gidatuekin. Elkarteak batzen dituen 60 lagunek astronomiaren inguruko ekintzak martxan jartzen ditue, gai honi buruzko ezagutza zabaltzeko asmoz. Asier Jaio elkarteko kidea da.

Astronomia Gelara bisita gidatua zertan datza?

Lehenengo, aurtien astronomiaren nazinoarteko urtea zergaitik den azaltzen dogu. Orain 400 urte lehenengo Galileok teleskopio bat zerura begira ipini eban, eta inork ikusi bako gauza piloa ikusi zituen. Gainera, Eguzki Sistemaren azalpena emon, gelan daukaguzen teleskopioak erabili, pisua eta masaren arteko aldea ezagutu eta beste hainbat kontu azaltzen dogu. Planetario bat be badaukagu hurreratzen direnei erakusteko.

Elkarteak lokal barria dauka.

Proiektua aurkeztu genduen, eta Eusko Jaurlaritzaren eta Durangoko Udalaren laguntasunagaz lokal barria egokitu genduen, Astronomia Gelagaz batera.

Elkarteak zer helburu dauka?

Astronomiari buruzko jakintzak zabaldu eta ezagutzera emotea dogu helburu. Ikasgela garrantzitsua da, baina hori ikasleei zuzenduta dago. Guk, aldiz, adin guztietako jentearrendako ekintzak antolatzen doguz, astronomiagazko interesa daukienentako. Ez da aditua izan behar elkarteko kide izateko.

Hainbat ikasle joaten jatzue.

Euskal Autonomia Erkidego osoan daukagun Astronomia Gela bakarra denez, Durangaldeko umeez gainera, kanpotik be etortzen dira.

Harrera ona izaten dau?

Ikasleek zein bisita gidatuetan

parte hartzen daben nagusiek interes handiagaz entzuten ditue Astronomia Gelan emondako azalpenak.

Elkarteak zer ekintza antolatzen ditu?

Bidaiak antolatzen doguz Madrilgo Museo Aeroespazialera, Frantziako Tolosako Espazio Hirira, Iruñeko Planetarioa etab. Sarrera ikastaroak be emoten doguz.

Sasoi honetan zer dogu ikusgai?

Urteko sasoi honetan Oriol konstelazinoa ikusi leiteke, iparraldeko neguko konstelazino nagusia da.

Jenteak zer galdetzen deusue?

Galdera ohikoena Pluton zergaitik orain ez den planeta kontsideratzen izaten da. Plutonek ez dauka nahikoa masa, beraz, txikiegia dela esan geinke. Planeta nanoa da. Planisferioa zeruan zelan ikusi eta interpretatu erakusten dogu, Eskala kontuan hartuta.

Zelansortu jatzun astronomiara-ko zaletasuna?

Egunkari baten kometa bati buruzko zeozer irakurri neban, zazpi edo zortzi urte neukazela. Durangon elkarte bat zegoela jakin neban, eta halan ekin neutsan elkartean.

Astronomia ikasi gurako zeunke?

Fisika ikasten nabil, eta master bat egin beharko neuke Madrilan edo Kanarietan. Beraz, master hori ordaintzeko aurretik behar apur bat egin beharko da.

Nondik ikusi leiteke ondo zerua?

Hiritan, argi-kutsadura handiegia dagoen lekuetan, gatxagoa izaten da zerura begiratzeta. Gai horren inguruan zergaitzen gabilzen be ezagutzera emon gura leuke elkarteak. Argi-kutsaduraren eraginez, hiritik mendi puntara joan beharra izaten dogu zerua ondo ikusteko. Geu be joaten gara eguraldiak laguntzen dauenean. ■ J. Guenetxea

“EAEn dagoen astronomia-gela bakarra da Durangon daukaguna”

“Argi-kutsadura handiegia daukagu zerura begiratzeko. Sarritan mendira joaten gara”

EKONOMIA[>]

> DURANGALDEA

Komertzio txikien "onurak" islatu guran

+Dendak merkatarik elkarrekin II. Film Laburren Lehiaketa jarri dau martxan. Azaroaren 23a bitartean helarazo ahal izango dira ikus-entzunezkoak

Sektorearen erakargarritasuna erakutsi guran II. Film Laburren Lehiaketa antolatu dau +Dendak merkatarik elkarrekin. Helburuak bi dira: komertzio txiki eta ertainen abantailak ezagutaraztea, batetik, eta, bestetik, bideokreazioa bultzatzea:

"Kalean bizitza mantentzearen alde, kalitateagazko konfiantzaren eta tratu pertsonalizatuaren aldeko apustua da merkataritza txikiari laguntzea". Herritarrek mezu hori ulertzea gura dabe, eta "uriko komertzioaren irudien bitartez egitea da modurik onena".

Azaroaren 24tik aurrera, Durangoko 10 tabernatan botako ditue DVDak, botoa emoteko aukera eskainiz

Uriko komertzio txikien "onurak" eta herriaren bizitzan daukien eragina ondoen islatzen dituen filma sarituko dabe: Tokiko komertzioetan erabiltzeko 1.000 euroko erosketa-balea lortuko dau; ikusleek aukeratutakoak, 500 eurokoa. Hilaren 24tik aurrera eskainiko ditue film laburrak—gehienez, 45 segundukoak— tabernatan: Anbotto, Kataska, Maite, Pausta, Pol-Pol, Rubgy, Alzaa, Misarbe, Lurbi eta Zahartzu-Karreton jarritako kutxatilan botkatuko da, 100 euroko bost erosketa-txartelen zozketan parte hartuz. Azaroaren 23a arte helarazo leitekez filmak, eta, sariak abenduan emongo ditue, 25. urteurren ekitaldien baitan. ■ A.B.

■ kolaborazioa



Mikel Etxebarria
ELA sindikatua

Aberastasunaren banaketa Zornotzan

Euskal Herriko gehiengo sindikala, urritik aurrera enpresetan eta azarotik aurrera kalean eta gizarteko esparru ezberdinetan kanpaina bat aurrera eramaten ari da, gaur egungo eredu ekonomiko eta soziala alda dadin. Kanpaina horretako punturik garrantzitsuenetarikoa bat kapitalismoak azken urteotan sortu duen aberastasunaren banaketa injustua salatzea eta aldatzea litzateke. Krisiak agerian utzi digu boteretsuak aberatsago eta langilegoa eta jende soila gero eta txiroagoa bihurtzen duen sistema suntsitu eta eraldatu behar dela.

Grebalariek zerbitzu berdinetako langileen baldintzen ekiparazioa eskatzen dute

Horren harira, Zornotzan aste honetan bi greba aurrera eramaten ari dira polikiroldegi / gimnasioa eta Nafarroa eguneko egoitzako langileak. Hemen, Udaletxeak erreprezentatzen duen kapitalismo instituzionalak aspalditik, ia udaletxe gehienek bezala, azpikontratatu egin ditu aurrean aipatutako zerbitzu horiek: kudeaketaz ezer ez jakiteko, enpresa (lagun?) pribatuak aberasteko, eta langilegoari lan-baldintza eta ekonomikoak murrizteko.

Grebalariek administrazioan zerbitzu berdinetan lan egiten dutenen soldata minimo eta lan-baldintza minimoen ekiparazioa exijitzen dute.

Alkateak dio krisi egoeran ezin dela hori amestitu. Ba ez!, ze zu ez zaude krisian, ezta zure udaletxea ere, azkeneko 6 urteotan eduki dituen diru sarrerei esker. Horren aurrean langileak elkar batuz indarra dutela konturatu dira, eta mobilizatzea eta greba egitea erabaki dute beraien eremuan pairatu izan duten diskriminazio injustuari buelta emateko. Ekiparazioa aberastasunaren banaketa da, eta helburu hori lortzeko bidea: borroka!

'Erraldetxoa'-k aurkeztuko ditu Erraldek 'Algusto'-n

Abenduaren 11tik 14a bitartean egingo dabe zabalik 'slow food' azoka BECen

Erralde hiltegiaren produktu "izarra" eta marka bihurtu diren 'Erraldetxoa'-k aurkeztuko ditue *slow food* mugimenduaren eskutik antolatutako Algusto azokan. Urte birik behin antolatzen den azoka abenduaren 11tik 14a bitartean egongo da zabalik, Bilbao Exhibition Centren (BEC). Erraldek ekoiztutako Berrizko Txuletoia be aurkeztuko dabe, Euskal Herriko beste hainbat produktugaz batera: Euskal Oiloaren kapoiak, Azpi Gorri antxumeak, Betizu arrazako esnetxahalak eta arraza bereko txuletoiak, eta, Euskal Txerriaren lukainka eta txistorra, esaterako.

Bestalde, azokara eroango dituen lau idi—Betizu arrazako eta Berrizko Txuletoia marka komertzialeko bina— hautatu ditue, Algustoren Txokoan dastatzeko.

Kalitatearen aldeko apustua
Slow food mugimenduagaz bideratutako elkarlanagaz, "kalitateko produktuen aldeko apustu argia" egin gura dau Erraldek, "merkaturian ez direnak zertan garestiagoak izan". Administrazio publikoak gazteen elikadura "gehiago inplikatu" beharko leukiela uste dabe, "kalitateko ganaduaren okela jan daien eta ez daiezen *fast food* deritzan horretan jausi, euren osasunean ondorio kaltegarrien bat eraginez". ■ A.B.

'Slow food' mugimenduaren eskutik antolatutakoa da Barakaldon ospatuko den 'Algusto' azoka

Kalitate organoleptiko "oso handiko" behi-heldu edo idien hegalekin egiten ditue 'Erraldetxoa'-k, hiltegi arduradunek azaldu lez: "produktuzino sistema hedakor edo erdi-hedakorren alde eta kalitate organoleptikoaren alde—ez bakarrik kanalen kalitate komertzialaren alde—egindako apustutik dator aldea".

Kalitate organoleptiko "oso handiko" behi helduen eta idien hegalekin egiten ditue hiltegiak 'Erraldetxoak'



Erraldek berak ekoiztutako hainbat produktu eroango ditu. BEC

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

MINKENDU
MASAJEA, AKUPUNTURA
(orratz gabe ere) ETA
MINAREN AURKAKO
TERAPIAK • HIDROLINFA

Alberto Murua
Andra Mari, 18 • 48200 DURANGO
tf. 662 270 770

KULTURA[>]

PINTURA > ERAKUSKETA

Kolore beroak Esther Agrasar pintorearen koadroetan

Azken bost urteetan Abadiñon bizi den Esther Agrasar margolari ondarrutarraren koadroen erakusketa dago ikusgai, bihar arte, Abadiñoko Errota kultur etxean.

Kolore beroak erabiliz, laranja eta gorriz, eta gehienetan pertsonen irudiak eginez osatutako lanak dira Agrasarrenak: ekialdeko herrialdeetako aurpegi eta jantziak kolore biziak margotzea du Agrasarrek gustuko.

Txikitatik afizio izan duen margogintza gehiago lantzen, orain urte batzuk Errota kultur etxean bertan egin zuten margogintza ikastaroan hasi zen azaroaren 14a arte bere lanak erakutsiko dituen Esther Agrasar. Natura hilak eta autoerretatuak

hasi zen lehenengo saio horietan margotzen. Orduetik, goizaldera arte geratzen da, batzuetan, koadroek harrapatuta. “Neuretzako eta egunerokotik deskonektatzeko dauzkadan tartetan margotzen dut gehien”, azaldu digu egileak.

Pertsonak agertzen dituzten irudiak ditu gogokoen, baina paisaiak ere margotzen ditu: Veneziako gondolak agertuko dituen bat egiten dihardu orain.

Lanak erakusteko gonbita umiltasunez eta lotsa apur batez hartu du, baina kalean jendeak lanagatik zoriondu duenean asko poztu dela aitortu digu. Bere margolana herrikideei erakusteko aukera asko eskertzen du Agrasarrek. ■ I.E.



12 Amuriza eta Iturriagaren saioa

Durangaldeko bertsolari bi aritu ziren domekan Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finalurreko bigarren saioan: Amuriza eta Iturriaga. Gorka Lazkanok idatzi du kronika.



13

Maidar Olaldegaz berbetan

Europako unibertsitateetako abesbatzetan kantatzen duten gazteek osatutako Munduko Abesbatzan parte hartzeko hautatu dute Maidar Olalde mallabitarra.

LITERATURA > EKIMENA

Hogei urtean dihardu Berbarok Haur Literatur Aretoa eratzen

Aurten lehenengoz, Zornotzako umeek ere gozatu ahalko dute Durangoko Berbaro euskara elkarteak antolatzen duen haurren literatur aretoagaz

Haur eta gazteen artean euskararen erabilera bultzatzeko helburuz Durangoko Berbaro euskara elkarteak antolatzen duen Haur Literatur Aretoaren aurtengo edizioa aurkeztu dute asteon. Hogeigarren urtez antolatu dute aurten, eta beste herri batera ere zabaldu dute ekimena, gainera: Zornotzan ere izango da Berbaroren eskutik Haur Literatur Aretoa. Guztira, Durangaldeko 5.000 haurrek hartuko dute aurtengo edizioan parte.

Oсотara, 5.000 umeek hartuko dute aurtengo edizioan parte

Zornotza, Zaldibar, Durango eta Elorrioren izango dira saioak

Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokak sortzen duen interesetik, eskoletarako pausua ematen du Haur Literatur Aretoaren bitartez Berbarok. Aurten Zornotzan, Elorrioren, Zaldibarren eta Durangon izango dira saioak, eta Azokako egunetan ere bai.

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan diharduten umeen irakurzaletasuna sustatuko dute, adin tarte bakoitzari egokituak formatuan; ipuin antzeztuak, ipuin kontalariak, antzerkia, idazleekin elkarrizketak eta erakusketak izaten dituzte, esaterako, saioetan. "Haurrak literaturara modu aktiboan gerturatzea" da jomuga. Antzerkiaren eta literaturaren bitartez, besteak beste, animaliak, heriotza edo bizikidetzako gaiak landuko dituzte saioetan.

Zornotzan, 1.712 haurrek hartuko dute parte, azaroaren 12tik 20ra arte, Haur Literatur Aretoan, eta Elorrioren, Zaldibarren eta Durangon izango dira hurrengo saioak. ■ I.E.

Azaroaren 12tik 20ra arte, Zornotzan egingo dabe lehenengoa



J.Fernandez

GEURE DURANGALDEA



Fernan Ruiz
Berbaroko kidea

Jantzi berria

Ibaizabalen ur uher eta lohien garaia zen. Sarri elkartzen ginen, zahar eta gazte lagun artean, eta berrikerian igarotzen genituen orduak. Zaletasun batek batzen gintuen arren, beste gai askori buruz ere jarduten genuen. Gehienetan gaztelaniaz, orduko dotrina lagunduta euskara ia ahaztuta geneukalako, eta tartean bazeudelako beste lurralde ilun batzuetatik goseak behartuta eta hiria- ren argiak liluratuta hona gazte etorritakoak.

Behin, halako solasaldi batean, lagunetako batek, euskalduna bera, honelakoa bota zien ironia handiz bertako beste lagun buri: "Zuek meritu handia duzue: 40 urte baino ez duzue behar izan 'egun on', 'agur' eta 'gero arte' esaten ikasteko".

Geroztik, Ibaizabal garbiago hasi zen bere urak bidaltzen, aurrerapenen seinale. Eta gaur, oraindik ere, berrogei urtetan "pixka bat es mucho" euskara ikasi zuten haien seme-alaba asko dotrina haren opari ditugu.

Urteak igaro dira pasadizo hartatik hona. Akaso, anekdota bat baino ez da, dotrina duen eraginaz jabetzeko. Legeak, arauak, erakundeak, hezkuntza sistema eraiki ditugu, eta gaurko egoerara iritsi gara. Zenbat urte daroagu euskara diskriminatzen? Zenbat euskal curriculum lantzen?

Andre dotorea agertu zaigu egunotan, komunikabideen aurrean, lege berri baten berri txarra ematera. Dotrina (nazionalista) eta eskubideak aipatu ditu, eta ni zur eta lur gelditu naiz, biluzik ikusi baitut, jantzi barik; Andersenren ipuineko umeak enperadorea ikusi zuen bezalaxe. Jostun koadrila dotrinazale amorratua hurreratu eta egundoko jantzi ederra egin dio neurrira. Eta hark horixe pentsatu du, "munduko jantzi onena da", eta jantzi du. Baina ezin du saihestu guk larru-gorritan ikustea. Ibaizabalen ur uherren garaia etorri zait gogora atzera ere.

BERTSOLARITZA > TXAPELKETA

kronika

Sorpresa gazi-gozoek

Asteburu honetan jokatu dira lehenengo bi finalurrekoak, zapatuan Bergaran eta domekan Gasteizen. Lehenengoan Maialen Lujanbio gailendu zen, eta bigarrenetan, osteran, Miren

Fresko, erraz eta seguru ibili zen Miren saio guztian zehar

Amuriza. Hain zuzen be, Gasteizko finalurrekoan eskualdeko ordezkarietako bikantatu eben: Miren Amurizak eta Unai Iturriagak. Eurekin batera, Iñaki Zelaia, Arkaitz Estiballes, Xabi

Gorka Lazkano

Paya eta Maddalen Arzallus aritu ziren kantuan.

Ezin esango dogu sorpresarik barik joan zenik eguna; denetik izan zen: gozotik eta gazitik.

Alde batetik, gozatu ederra emon euskun Berrizko neskati-la gazteak, eta, inor gutxik espero eban moduan, saioa irabazita sailkatu zen finalurrekoetako bigarren bueltarako.

Unai Iturriagak ez eban ideiak bertsoa tolesterakoan asmatu

Fresko, erraz eta seguru ibili zen Miren saio guztian zehar, eta entzuleak be asko eskertu eban haren kantaera, arrazoiak, erantzuteko erraztasuna eta ohol-tza gaineko jarrera.

Gozo eta hunkigarri aritu zen 8ko nagusian Maddalenez. Lotsagabe eta barreak eraginez, osteran, Xabigaz txikian, seiko

motzean. Iturriagagaz saio sinesgarria osatu eban, eta kartzelakoan zoragarri. Puntuen erantzuna be txukun eroan eban, hirugarrenean apur bat behera egin baeban be.

Txanponaren beste aldean, barriz, Unai Iturriagak erakutsi euskun: ezinean ikusi genduen durangarra. Domekan ezin izan eban bere benetako maila erakutsi. Bere estiloan eta ideia alde-tik fresko ikusi genduen, baina ez eban ideiak bertsoa tolesterakoan asmatzen.

Dena dela, gauza jakina da Unai maila handiko bertsolaria dena, eta domekan bere eguna izan ez bazen be, ez dauka oso gatx bigarren bueltarako sailkatzea. Mirenek hanka bat ia finalean daukala esan leiteke, eta Unai hurrengo saioan bere maila erakustea baino ez dau behar bide bera hartzeko. Animo eta zorte on bioi! Datorren zapatuan Tolosan jokatu da hurrengo finalurrekoa, eta han izango da Igor Elortza be bere balioa erakusteko gogoz. Ia ba lortzen dozun, Igor, eta animo zeuri be!



Bertsozale elkarte

MUSIKA > KANTUA

Zelakoa izan da Valentziako esperientzia?

Lehenengo edizinoa izan da aurten. Parte-hartzaile gehienak europarrak izan gara; oso esperientzia polita izan da. Zortzi minutuko grabazinoa aurkeztu genduen, eta Valentziara joateko hautatu ginduz.

Zer jarraipen izango dau nazionarteko talde horrek?

Asmoa, urtean gitxienez behin elkartu eta hainbat lekutan topaketak egitea da. Apiril edo maiatz aldean be kontzerturen bat egitea daukie aurreikusita. Urtebeterako konpromisoa daukagu, unibertsitatea itzita be abesbatzan jarraitzeko.

Gatxa izan da abesbatzako beste herrialde batzuetako kideekin elkar ulertzea?

Abesbatzakoak ez eze, orkestrako musikariak be egon dira, eta momentu batzuetan nahiko gatxa izan da guztion koordinazinoa lortzea. Orokorrean, baina, oso interesantea izan da Valentziako esperientzia.

“Umetan denborapasa zen abesbatza, orain zaletasuna”

Parisen be mantentzen dozu hartu-emona kantuagaz?

Bai, bertako Unibertsitate Hiriko abesbatzan hasi naiz. Oraindino entsegu bakar bat egin dot, baina, Parisko taldeagaz. Astean behin batuko gara, eta otsail hasieran kontzertua izango dogu: Brahmsen obra bat kantatuko dogu.

Zer alde dago hemengo abesbatzekin konparatuta?

Lehenengo, Mallabiko Jasokunde abesbatzan hasi nintzen, eta unibertsitateko abesbatzan be ibili izan naz Bilbon. Hemen, inguruko jenteezag hartu-emon estua neukan, eta zuzendariak zer gura eban be ezagutzen neban. Parisko taldean, nire moduan esperientzia daukatenak eta aurretik abesbatza baten sekula kantatu bako jentea dago. Anitzagoa da.

“Soinuari jagokonez, osotasuna lortzea da abesbatzen helburua”

Bere herriko Jasokunde Abesbatzan bederatzi urte zituela hasi zen **Maidor Olalde** kantuan. Parisen ingenieritza ikasketak egiten dihardu, eta unibertsitateko abesbatzan kantatzen du orain. Europako unibertsitateetako kantari gazteek osatutako abesbatza batean kantatzeko aukeratu dabe Valentziako topaketa batean. Handik bueltan eta Parisera bidean egin dogu Olaldegaz hitzordua



Zelan izan zen kantuagaz zale-tzen joatea?

Bederatzi urtegez hasi nintzen Mallabiko Jasokunde abesbatzan, eta orain lau bat urte itzi arte bertan jardun dot. Eskolako denok emon genduen izena. Holan joan nintzen kantatzeari gustua hartzen.

Izan be, kantuzale fama badaukazue Mallabian...

Jasokunde umeen abesbatza izan zen lehenengo, eta nagusiak be zaletu ziren gero: gurasoen taldea be sortu eben, orain urte batzuk. Bai, kantatzeko gustua badago Mallabian.

“Neskak mutilak baino askoz gehiago izaten gara abesbatzatan”

“Bederatzi urtegez hasi nintzen Jasokunde abesbatzan”

Zer dauka kantuak hainbeste urtean lotzeko?

Hasieran, umetan, denborapasa zen abesbatza, baina urteak igaro ahala abesbatzei lotuta jarraitzeko zaletasuna behar da, bai. Kantuak geroago eta exigenteagoak dira, geroago eta esfortzua handiagoa eskatzen deusue. Asebetetzea be geroago eta handiagoa izaten da.

Jente gazterik badabil?

Neskak mutilak baino askoz gehiago izaten gara abesbatzatan. Askotan denboraldiak izaten dira; momentu batean talde oso polita egon leiteke, bai-

na zoritxarrez ez da betirako: urteak aurrera egin ahala gatxagoa da denpora ateratzea. Erreleboa behar da, eta gorabehera asko izaten dira horretan.

Abesbatzan taldea bera izango da inportantea...

Bai, lortzen gatxena be bai: ahots bakarra balitz legez entzun behar dau jentek; edo lau ahots mota behar badira, lau bailiran. Oso ahots mota desberdinak aritzen dira abesbatzatan, eta moldatu egin behar zara besteen ahotsetara. Soinuari jagokonez, osotasuna lortzea izaten da abesbatzen lanik gatxena. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

AZAROAK 14 19:00etan
DANTZALDI IBILTARIA 2009
AIKO TALDEA
DANTZALDI ERROMERIA. Sarrera doan.

AZAROAK 19 20:00etan
KANTUAREN KANTOIAN
Gonbidatua: Petti
BERBALDI MUSIKATUA. Sarrera doan.

AZAROAK 20 22:00etan
PURO CHILE +
NARRATS
KONTZERTUA. Sarrera: 5 euro.

Eguneko menua asteleheneretik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

JOANEN ILARGIA
Teatre NU (Katalunia)

Azaroak 15 • 18:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburudenda

Tf.: 94 601 07 76 Artekale, 14 Durango

LIBURUA > AURKEZPENA

'Bateo ura dariola' liburua aurkeztu dute Andra Maria elizan

Durangoko Andra Mariko lehenengo bataio agiria idatzi zela 500 urte direla gogoratuz

Urtarrilaren 6 batean, 1510 urtean, jaso eben Durangoko Andra Maria elizan, lehenengoz, herritar baten bataio-agiria; Bizkaiko zaharrenetarikoa dela nabarmendu du Jose Mari Kortazar gaur egungo Andra Mariako abadeak. Bost mendeen urteurrena aitzakia hartuta, Andra Mariaren historiari buruzko 31 laguneko idatziak biltzen dituen liburua aurkeztu dute.

Besteak beste, Jose Luis Acho-tegui, Antton Mari Aldekoa-Otolora, Jon Irazabal edo Joseba Sarri-nandiaren Andra Mariari buruzko idatziak biltzen ditu *Bateo ura dariola* deitu duten liburua. Olerki, ipuin eta ilustrazio forma duten lanek osatzen dute, gaur, azaroaren 13an, 20:00etan Andra Marian jendarteratuko duten liburua.

Euren idatzi edo ilustrazioekin kolaboratu duten guztiak gonbidatu dituzte gaurko aurkezpenera, eta, aurreratu dutenez, urteurrenaren harira Xabier Aranak organurako konposatu duen lana entzuteko aukera izango dute bertaraten diren herritarrek.

Andra Mariari buruzko 31 laguneko gogoetak jasotzen ditu liburua

Liburuaren mila ale argitaratu dituzte, eta Andra Maria elizan bertan zein abenduko Durangoko Liburu eta Disko Azokan ere salgai ipiniko dute, 10 euroan, *Bateo ura dariola* lana.



Erakusketa urtarrilean

Leopoldo Zugaza komisario duen erakusketa ere antolatu dute, lehenengo bataio-agiriaren urteurrenaren harira. Urtarrilean izango da ikusgai. Bost mendetan Durangon izandako gerra, bonbaketa eta bestelako zailtasunak iraganda, gaur

Orain 500 urteko bataio agiria ikusgai izango da urtarrileko erakusketan

egunera arte gordetako agiria ipiniko dute, besteak beste, erakusgai. Andra Mariari zein Durangoren historiari eta arkitekturari buruzko askotariko informazioa bilduko dute, Durangoko Arte Historia Museoa, urtarrilaren 6tik 29ra izango den erakusketan. ■ I.E.

PROGRAMAZIOA > AURKEZPENA



Ana Dominguez

Orkestra kataluniarra azaroko kultur programazioa abiatzeko

Joan zen zapatuan Errota kultur etxean izan zen Empordáko Ganbera Orkestraren emanaldiagaz abiatu dute azaroko kultur eskaintza Abadiñon

Kataluniako Empordá eskualdeko Ganbera Orkestraren azaroaren 7ko kontzertuak abiatu zuen azarorako Abadiñon antolatu dituzten emanaldi kulturalen programazioa. Lehenengo aldia izan zen, joan zen zapatukoa, halako orkestra baten emanaldia izan dena Abadiñoko Errota kultur etxean aukeran.

Abadiñoko auzo eta aretoetan izaten den kultur eskaintza osoaren berri jasotzen duen eskuorria kaleratu du Udalak, lehenengoz, azaroan. Aurrerantzean, hilero-hilero, Txanporta eta Errota kultur etxean programatzen dutena

Herriko kultur eskaintza jasotzen duen eskuorria kaleratuko dute hilero

Umeentzako euskarazko film emanaldiak, barikuro, Txanportan

zein herriko askotariko elkarteek antolatutakoaren berri jasoko dute aipatutako eskuorrian.

Azaroko programazioan, bestalde, antzerki obra bi jaso dituzte: Ez Dok Hiru Bikoteatroaren *Euskarazetamol* antzezlan, azaroaren 21ean, eta Durangoko La Papa Teatroren *Rosas Rojas*, emakume-kiko indarkeriaren kontrako nazioarteko egunean, azaroaren 25ean, izango da Errotan.

Bestetik, hil honetatik aurrera ipiniko dituzte martxan haurrentzako euskarazko film emanaldiak; Txanporta kultur etxean, barikuetan da hitzordua. ■ I.E.

ZINEMA > EMANALDIA

Palestinako gazte biren istorioa: 'Paradise Now'

Azaroaren 20an, 19:30ean, Durangoko San Agustin kultur gunean eta Uztartuz kultur elkarteak bultzatuta eskainiko dute 2005ean Hany Abu-Assad-ek zuzenduriko *Paradise Now* filma.

Atzerriko Urrezko Globo saria irabazi zuen eta Oscar sarietarako ere izendatu zuten filmak Israelen eraso suizida egitera doazen Said eta Khaled palestinarren istorioa kontatzen du.

Zisjordaniako errefuxiatuen eremu batean bizi diren mutil gazte bi dira *Paradise Now* filmeko protagonistak. Errefuxiatu eremu horretako bizimoduaz eta euren herriak jasaten duen errepresio egoeraz nazkatuta, Israe-



leko Tel Aviv-en eraso suizida egitea erabakitzen dute Said eta Khaledek. Palestinako bizimodua erakusten du filmak. ■ I.E.

MUSIKA > EMANALDIA

Puro Chile, zuzenean entzungai Plateruenean

Urko Igartiburu, Mamen Rodrigo, Pedro Fernández eta Ane Iri-sarri taldekide elorriarrek urte honen hasieran aurkeztu zuten diskoaren eta Puro Chile taldearen aurkezpen kontzertua izango da, azaroaren 20an 22:00etan, Durangoko Plateruenean.

Berrizko Lorentzo Records estudioan grabatu, baina taldekideek eurek ekoiztutako disko berriko kantak eskainiko dituzte azaroaren 20ko kontzertuan. Diskoa aurkezteko Urko abeslariak esan zigunez, disko honetan "zer izan garen, nor garen eta noran-

tza goazen islatzea lortu dugu". Rock bizi eta koloretsua eginez euren belaunaldiko hainbat jende musikara "berkonektatzea" lortu dutela-eta, pozik agertu zitzaizkigun otsailean Puro Chilekoak. Musikazaleak eta eskualdeko lagunak izango dituzte, segururik, entzule. ■ I.E.

Otsailean kaleratu zuten diskoko kantak joko dituzte Plateruenean

44. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA



"Galtzeko ez dugu ezer, eta irabazteko, aldiz, asko"

Txapelketa Nagusian bete-betean murgildu da Miren Amuriza. Errusiar mendiko puntara iristear dago, ezustean. Laudion eta Gasteizen aurreneko lerroan jarri ondoren, atsedetik gabe dabil. Baina burua argi eta oinak lurrean.



Argazkia: Galder Izagirre

Bertsolari legez ezagutzen zaitugu gehienok Euskal Herrian, baina, nolakoa da Miren Amuriza?
Nire adineko edozein gazteren antzekoa naizela esango nuke; parrandazalea, ikaslea... Bizitzari ilusio handiz begiratzen diona.

Eskolartekoan urte batzuetako esperientzia baduzu, eta lehen aldia da Txapelketa Nagusian parte hartzen duzuna. Badirudi, gazteok goia jotzeko prest zatoz-tela.

Txapelketa Nagusian kantatu ahal izatea aukera itzela da guretzat, galtzeko ez baitauek ezer eta irabazteko, berriz, asko. Lehenengoz parte hartu dugun guztioi nabaritu zaigu lasaitasun hori, eta saioetan izandako emaitzek argi erakutsi dute, gainera.

Durangaldeak, txapelketako pankarta eta animoer gain, zer ematen dio 19 urteko neska gazte bati?

Gasteizen bizi naizenetik Durangaldea faltan botatzen dudala konturatu izan naiz sarritan. Eta ni bezalako bati zer eskaintzen dion? Anboto, Durangoko Azoka bera, herri txikietakoa jaiak... Bizitasun handia dauka gure inguruak.

Zuk ere hurbiletik bizi dituzu abenduko Azoka egunak...

Umetan ia urte osoa pasatzen genuen Azoka noiz etorriko zain; desiatzen egoten ginen bertara joan, musikari eta

idazleak ikusi, edo zerbait erosteko. Gainera, Azoka zuzenean lotzen genuen Olentzerorekin, eta horrek halako magia berezi bat ematen zion. Gaur egun, oso ezberdin ikusten ditut kontuak, baina, hala ere ilusioz egoten naiz Azokari begira. Gero igarri orduko bukatzen zaigu, baina...

Egunerokoan, nola entzuten duzu musika, mp3-an ala CD-an?

Eta kasetteak zer? Nik, behintzat, etxean kutxa bat betebeterik daukat, eta sarritan entzuten ditut. Autoan noanean ere, beti behar izaten dut musika -suabe-suabe jarrita egon arren-, beraz, guanterara ere CD-z gainezka daukat beti.

Eta liburua zein egunkaria, pape-rean ala digitalean?

Paperean, dudarik gabe.

Baduzu Azokan bertan erosita-ko liburu edo disko kuttunik?

Makina bat liburu eta disko erosi ditut Azokan, eta ez nuke

jakingo bakarra aukeratzen. Adinaren arabera, gustuak ere aldatuz doazkit, eta lehen *Euskaraokea*-ren kasettea edo Harry Potterren liburuak erosten nituen bezain gogotsu erosi ditut aurten poema liburuaren batzuk edo bakarlariren baten diskoa.

Baina bertsotan aritzeaz gain, Miren Amurizak zer proiektu ditu eskuartearen?

Azken boladan Txapelketan murgilduta ibili naiz, eta, egia esan, ez dut asti handirik izan beste ezertan pentsatzeko. Beraz, esku artean, oraingo, proiektu berririk ez dut. Baina buruan... Erdiak beteko banitu pozik!

Durangoko Azokan lan berri bat sinatzen aurkituko al zaitugu inoiz?

Batek daki! Ilusio handia egingo lidake, baina, aurtengoz behintzat, gustura egongo naiz ilaran liburu edo diskaren bat sinatu diezadaten.

44 segundutan

Zer eskainiko zenioke?
Mosu handi-handi bat.

Nori eskainiko zenioke?
Aurten Txapelketako saioetara beste zereginik barik ni entzutera etorri diren ezagun eta lagun guztiei.

Noiz eskainiko zenioke?
Mikrofonoaren aurrean jarri eta bertan daudela ikusten dudan bakoitzean.

Non eskainiko zenioke?
BEC-en, agian? Ez; aurtengoz konforme nago Anbotoko orri hauetan aipamenduxo bat eginda ere.

Zertarako eskainiko zenioke?
Niri, behintzat, indar handia ematen dit inguruko babesak, eta errekonozimendu hori merezi dutela uste dut.

Zergatik eskainiko zenioke?
Eskerrak behar baino gutxiagotan ematen ditugulako.

44

DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

2009ko Abenduaren 4tik 8ra

DURANGOKO AZOKA ZURE ESKURA DAGO

CATALÀ & EUSKARA

X 30.000 LIBURU BAINO GEHIAGO + 4.000 m²

+ (KONTZERTUAK + ERAKUSKETAK + PARTAIDETZA + MUSIKA < JAI GIROA) X 44 URTE





Bilaketa Foru Akademiak
Nagusiaren Foruak de Sarriak



DURANGO Foru Akademiak









Institut ramon llull
Ikuntza eta kultura katalanak





Pokerra: gurean be modan dagoen karta-jokoa



Ana Dominguez

Arrakastaren olatua hartu dau Pokerrak, eta dagoeneko Durangaldeko hainbat txokotara ailegatu da. Jente ugari erakarri dau joko honek; astero-astero, mahaiaren bueltan batzen dira asko eta asko. Guk be, zortea eta, batez be, estrategia oinarri dituen karta-joko hau aztertuko dogu.

Azterketek XVII. mendean Frantzian garatu zen Poque izeneko jokoagaz lotzen dabe pokerra

Urteak dira telebistan poker txapelketak erretransmititzen hasi zirela, eta badakigu aparatatu horrek zelako eragina daukan gizartean; ez da denpora askorik behar izan joko hau telebistatik mahaira pasatzeko. Birusa balitz legez hedatu da han eta hemen, eta Durangaldean be indarra hartzen dabil, beste leku askotan legez. Musari kontrario gogorra agertu jako.

Historia

Gaur egun modan egon arren, bere jatorria ezagutzeko, denporan oso atzera egin behar da. Dataren inguruko eztabaida dago ikertzaileen artean, baina ezin da ukatu zibilizazio ugari-

ren jokoan ondorio dela. Batzuek 969an kokatzen dabe sorrera, Muntzung enperadore txinatarrak domino berezi batean jolasten eban garaietan. Antza denez, greziarrek sistema hori hobetu eban XIII. mendean. XVI. mendean persiarrek erabili eban 'as nas' jokoan jartzen dabe beste batzuek oinarria, eta denporan honantzago datozen teoriak XVII. mendean Frantzian garatu zen Poque izeneko jokoagaz.

Aurrez aurrekoa

Taberna eta lokal ugari hartzen ditu poker partida eta txapelketak. Munduan zehar profesionalak badiren arren, batez be, afizinoagaitik elkartzen dira

zaletuak gure eskualdean. Askok lagun artean neurtzen ditue indarrak, beste batzuek torneoetan parte hartzeko ohi-tura daukie. Hori bai, jolasa baino, joko dela esan leiteke: dirua erabiltzen da normalean. Musean ez bezala, pokerrean bakarka jokatzen da. Dena dela, badagoz bien arteko antzekotasunak, eta handiena da bietan apustu egiten dela.

Kasinoetan elkartu ohi dira jokalaritza trebeenak. Diru asko mugitu ohi da bertan, eta kopuru horretatik komisino bat hartzen dabe antolatzaileek. Tabernetan, aldiz, jabeek lekua eskaintzen dabe eta dirua parte-hartzaileen artean soilik banatzen da. Honako hau da momentu honetan sona lortu dauen jokatze modua.

Internet

Bestalde, internetek be bere aukera eskaintzen dau. Programa informatikoei esker, jente askok parte hartzen dau sare bidezko partidetan.

Telebistagaz batera, internet da pokerraren arrakastaren arra-

Taberna eta lokal ugari hartzen ditue poker partida eta txapelketak

Programa informatikoei esker, jente askok parte hartzen dau sare bidezko partidetan

zoi nagusietakoa; pokerrera zale-
tuek orduak eta orduak pasatzen
ditue pantailaren aurrean. Horren
adibide da *pokerdurango.com*
webgunea.

Zortea?

Jendarteko aurreiritziak ez dira
pokerraren mesedetarako. Gehienek
bizioagaz eta diru galerekin lotzen
dabe karta-joko hau, eta kasu batzuk
izan arren, bertsinoa ez da guztiz
egiazkoa. Zaletuek jokoaren balioa
defendatzen dabe, eta mahai gainean
jartzen den dirua bakotzak kontrolatu
behar dau. Afizionatuek apustu
apalak egin ohi ditue, norma-
lean.

Beste aurreiritzi batek lotu-
ra zuzena dauka diru-galerekin:
zortearen gainekoak. Egia da
faktore esanguratsua dela, baina
pokerra ez da loteria. Estrategiak
pisuzko garrantzia dauka joko-
aren norabidean.

**Egia da joko
honetan zortea
faktore
esanguratsua dela,
baina pokerra ez
da loteria**

**Estrategia
funtsezkoa dela
lehen mailakoek
erakusten dabe:
asko xake
mundutik datoz**

Estrategia

Partida hasterakoan, zortea izate-
a komeni da, apustua itsu-
itsuan (kartak erakutsi barik)
egiten da-eta. Baina emaleak
kartak mahai gainean eskain-
tzen dituenean, gainerakoen
jokaldiak aurreikusten hasi lei-
teke. Besteen mugimendu eta
jarreraren arabera, bakotzak bere
estrategia definitu behar dau.
Helburua, ahalik eta gehien irabazte-
a, beti be burua galdu barik. Estrategia
funtsezkoa dela lehen mailako jokalariek
erakusten dabe: asko xake mundutik
etorritakoak dira, dirua egitea errazagoa
dela eriztita. Gure inguruko poker jokalari
afizionatuen kasuan, gehienbat, muslari
amorratuak direla ondorioztatu leiteke.

Pasinoa: horixe da pokerra
zaleentzako. Bere hizkuntza propioa,
askotariko modalitateak, irabazteko
aukera, giroa... Erakargarria izateko
ezaugarri guztiak daukaz. Ikusiko dogu
gaur egun moda bat dena asentatu
egiten den ala ez.

“Etorkizunean, parte-hartzaile guztiak federatuta egotea gura dogu”



Durangon azkar hedatu da pokerra. Joko honegatzko afizino itzela sortu da, eta batzuek antolatze beharra ikusten dabe. Jokin Begoña dabil zeregin horretan. “Vampirus” gatzizenagaz jokutzen dau Durangoko gazte honek.

Mahaiaren bueltan batu gara Jokin Begoña *Vampirusegaz*, baina kasu honetan kartarik barik. Argi azaldu deusku zer den eta zer ez den pokerra. Bere intentzinoen barri be emon deusku.

Durangon elkarte bat sortzekotan zabilzela entzun dogu.

Pokerraren gaineko webgune bat kudeatzen dot, *pokerdurango.com* izenekoa. Bertan, jokoaren inguruko hainbat informazio dago eskuragarri, eta praktikatzeko aukera be badago. Esperientzia ona izan da, izan be, Durango inguruetako 117 kidek emon dabe izena webean. Nire nahia elkarte ofiziala sortzea da, eta dagoeneko azken urratsak baino ez dira falta. Bestalde, beste hainbat herritako zaletu eta elkarte batzuekin federazioa sortu guran gabilz.

Zer helburugaz zabilze horretan?

Helburu nagusia babes legala izatea da. Irabazi asmo bako elkarteak sortu gura doguz partidak antolatze; komisinoa kobratuko litzake, baina hori elkartearen edo lokalaren gastuetarako izango litzake. Gaur egun, taberna batean torneo bat antolatu bada, antolatzaileak komisinoa kobratzea legez kanpoko da. Beste helburu bat jokalarien arteko hartu-emona sendotzea da: maila desberdinetakoek elkarrekin jokatzeko gura dogu, joko bera hobetzeko. Azkenik, etorkizunean, parte-hartzaile guztiak

federatuta egotea gura dogu, jokalariegez izendatzea. Seriotasuna emon gura deusku.

Kanpotik ez dago lar ondo ikusita.

Jenteak bizioagaz lotzen dau, uste dau dirutzagaz ibiltzen garela eta jokoak ez deuskula ardura. Kontua da bakotzak jakin behar dauela noraino gastatu leiken; partida batzuk 0,2 eurokoak izaten dira, adibidez, eta hasibarriek edo maila apalekoek hoba dabe hortik hasi. Dirua galtzea bakotxaren izaeraren arabera da; frontoian edo burtsan be galtzen dau dirua jenteak!

Noiztik zabilz zu kontu honetan?

Nik lehenago musean jokutzen neban, gau eta egun. Orain dela hiru urte, pokerra ezagutu neban interneten, eta probatzea erabaki neban. Geroztik ez naz geratu be egin.

Batzuek pokerra zortea dela dinoe.

Hori uste dabenak ez dabilz zuzen. Zortea ez dator txarto, baina garrantzia gehiago daukie estrategiak, esperientziak eta mahaiko jarrerak. Bilboko sailkapenean lehenengo postuan dagoena, Espainiako xake sailkapeneko hirugarrena da; hori ez da kasualitatea.

Bizi leiteke honetatik?

Batzuk bizi diren arren, oso gatxa da hori. Esperientzia eta dirua eduki behar dira horretarako.

Asteburuetan musari lekua kendu deusan joko

Asteburu ailegatzean, Durangaldeko hainbat taberna eta lokal pokerrazalez betetzen da. Herriz herri batzen dira jokalariek, baina amorratuenek zirkuitu antzeko bat osatzen dabela esan leiteke.

Eskualdean arrakasta gehien daukan kantxa Sweet&Vicious diskoteka da. Eguenero antolatzen dira bertan partidak, eta bete egin ohi da: izena emoten daben lehenengo 55 lagunek parte hartzen dabe lehian.

Gainera, areto honetako jokoaliga moduan eratzen da; hau da, egueneroko puntuazioa kontutan hartzen da. Beraz, zaletuak erakartzeko beste modu bat sortu dabe bertan. Hilabetea amaitzean, lidertzan doan jokalariek Bilbo

edo Donostiko Kasinoetarako txartela eskuratzen dau.

Durangoko poker zirkuituan sartzen da, Rey de Copas tabernako jarduna be. Taberna horrek hilabete bi baino ez daroaz zabalik; hiru laguneko joko tabernaren izaeran barnertzea pentsatu eben.

Zapatuetan izan ohi da Rey de Copaseko zita, eta aipatzekoa da Durangoko jaietan I. San Fausto Texas

Hold'em torneo antolatu ebela. Texas Hold'em gaur egun gehien erabiltzen den poker modalitatea da.

Bestalde, asteburuetan ez eze, eguenerokotasunean be interneten orduak emoten ditue zaletuak. Eguenero doaneko partidak egiten ditue *www.pokerdurango.com* webean, 21:00etan eta 23:00etan. Domekan finala izaten da. Martitzenetan, aldiz, dirua eta sariaktartean direla, Liga Nostrumen batzen dira.



Rey de Copas tabernako kide Asier Alberdi eta bertan jokatutako partida bat, joan zen zapatuan. A.Dominguez

Gutunak

PNV- Aralar, berdin da!

Orain dela urte asko "PP- PSOE berdin da!" oihukatzen hasi ginen kaleetan zehar; gero PNV eta PSOE berdin zirela ziurtatu genuen; eta orain PNV eta Aralar berdindak direla erakutsi digute.

Hori ondo ulertzeko galdera bat egitea besterik ez dago: Zein da bi alderdi horien helburua? Zer etorkizun nahi dute bi alderdi horiek Euskal Herriarentzat?

Aspalditik dator PNVk AHTa egiteko duen grina, alderdi autonomista hori izan da, hain zuzen ere, proiektu suntsitzaile honen sustatzaile nagusia, eta orain Eusko Jaurlaritzatik kanpo egon arren, bere horretan jarraitzen du eskuan dituen baliabide guztiak erabiliz; horra hor Eudel-eko ordezkariak Eusko Jaurlaritzarekin sinaturiko hitzarmena, PNVk gobernatzeko dituen Udalek AHTaren trami-teak errazteko duten jarrera...

PNV buru dutela, honelako azpiegituren ezaugarri komun bat herriarren parte-hartze eza da. Proiektu hauetan guztietan gizarte-aren parte-hartzea ukatzen da, eta horrek demokraziatik urrundu besterik ez ditu egiten politikari eta ekonomiaren buruzagi horiek.

Aralar, ordea, bai EAeko Legebiltzarrean zein AHTaren aurkako manifestazioetan argi ageri izan da makroproiektuaren aurka. Baina, egia esan, Aralarrek proiektu honekiko duen nahaspila izugarria da. AHT Gelditu! Elkarlaneko kide izan arren, lan eremu nazionala duen mugimenduko kide izan arren, EAEn AHTaren aurka azaltzen da, baina Nafarroan NaBairen kide izanik AHTaren aldeko jarrera du. Nork ulertu dezake kontraesan hau?

Bide hau jarraituz, Eusko Alderdi Jeltzaleari berdina gertatu zaio: Hego Euskal Herriaren aldeko jarrera sutsua agertzen du, Ipar Euskal Herriaren, berriz, AHTaren aurkako mobilizazioetan parte hartzen du. Ez al da alderdi bera? Edo desberdinak al dira PNV eta PNB?

Egia esan, agian Hego Euskal Herriko PNV eta Iparraldeko PNB desberdinak izango dira; eta EAeko Aralar eta Nafarroako Aralar desberdinak izango dira. Baina ez dago zalantzarik PNV eta Aralarrek berdintasun ugari dituztela; argi utzi digute. Guk argi daukagu Euskal Herria dela gure lan eremua, sortaldetik sartalderaino abiadura bizian eramango gaituen trenikez dugula behar. Euskal Herriko herri, txoko, mendi eta errekek ondo disfrutatzeko bi hanken gainean ibili besterik ez dugula egin behar; horixe, Euskal Herri guztian AHTaren aurkako lanean, sortaldetik sartalderaino.

AHT gabeko Euskal Herri baten alde lanean gabiltzan bitartean, zera oihukatuko dugu:

Interesa non, PNV eta Aralar han: PNV - Aralar, berdin da!

Gorka Erdoiza Garzia - Durango

Espetxeetako gertakariak, senideak bisitarik gabe eta atxiloketa bat

Euskal preso politikoen senide askok planto egin zuten asteburuan beste behin; hala, aurrez aurreko bisitetara sartu aurretik katxeatuak izateari uko egin zioten. Egoera salatzeke, itxialdi mugagabea abiatuko dute Huelvako espetxean eta egoera konpondu arte presoak ez dira bisitetara irtengo. Asteburu honetan ere Estatu espainolean barreiatutako espetxe ugari bertan behera geratu ziren euskal preso bisitak. Izan ere, senide eta lagunak uko egin zioten bisitetara sartu aurretik katxeatuak izateari. Madrilek espetxeetara bidali duen zirkularraren ondorioz, presoekin aurrez aurrekoak izan aurretik, lagun eta senideak katxeatu egingo dituzte aurrerantzean funtzionarioek.

Etxeratek jakinarazi duenez, Curtisko espetxean Aritz Azkona preso iruindarraren neskalagunari aurrez aurreko intimoa egitea galarazi zioten sartu aurretik funtzionarioek uki zezaten utzi ez zuelako.

Gainera, Etxeratek salatu duenez, kartzelariak jarrera gogorra izan zuten eta liskarra izan zen. Bonxeko espetxean, berriz, Txomin Troitoren bi senideei ukatu zieten aurrez aurreko bisita egitea arrazoi berdina tarteko.

Teruelen, Mikel Lizarribar eta Josu Lezamaren neskalagunak ere aurrez aurretik gabe geratu ziren. Espetxera sartu bezain laster zirkularraren berri eman zieten, eta katxeatuak izateari uko egin ziotenez, ez zieten bisitara sartzen utzi. Lizarribarren lagunak, aldiz, bisita arrunta egin ahal izan zuten, zirkularrak aurrez aurreko bisitei bakarrik egiten baitie erreferentzia. Egoera ikusita, espetxeko arduradunekin hitz egin eta idatzizko salaketa aurkeztu zuten. Jaengo espetxean, berriz, Jose Mari Sagardui "Gatza" presoaren alabari aitarekin aurrez aurreko bisitaldia egitea galarazi zioten. Alabak salaketa jarri zuen bertako epaitegian. Larunbatean, besteak beste, arazoak izan ziren Curtisen, Villenan, Puerto II-n, Herrera de la Manchán eta Huelvan. Azken kartzela horretan hiru presoaren senideei eragotzi zieten aurrez aurreko bisitak egitea; azkenean, baina, espetxeko preso guztiak geratu ziren bisitarik gabe, senideek gertatutakoa azaldu zieten guztiek eten baitzituzten bisitak. Atzo iragarri zuten, egoera salatzeke itxialdi mugagabea abiatuko dute gaurtik aurrera.

Etxerat elkarteak gogor salatu nahi du euskal preso politikoen senideen aurka ematen ari diren neurriak. Azken bi asteetan, espainiar Estatuko lau espetxetan (Badajoz, Albacete, Foncalent eta Alcalá Meco) senide eta lagunak katxeatu nahi izan dituzte bisitetan sartu aurretik. Badajozen, espainiar polizia eta espetxe zaindarien bisita egitera zihoazen senideak katxeatu nahi izan zituzten. Euretako askok uko egin zioten, eta bisitarik gabe geratu ziren. Foncalenten, Madrilek etorritako agindu bat dutela argudiatuz, Endika Abad presoaren gurasoak katxeatu eta biluztu nahi izan zituzten. Beste horrenbeste gertatu zen Albaceten Txus Goikoetxea preso arrasatearraren bikotekidearekin. Alcalá Mecon, Josu Arruabarrena oreretarraren eta Sergio Boado iruindarraren senitartekoak katxeatuak izan ziren bisitara sartu aurretik.

Euskal preso politikoen aurkako espetxe politika kriminala gogortu nahi dute. Antza, ez omen dute aski sakabanaketa, Bizi Osorako Zigorra, Heriotza Zigorra, isolamendua, bakartzea, jipoiak, mehatxu, komunikazioen bortxaketa etengabea etabarrek... Presoak pertsona eta subjektu politiko gisa suntsitu nahi dituzte. Euren inguru sozial eta afektibotik aldentuta. Horrekin batera, euren senide eta lagunak kolpatu eta umiliatu nahi dituzte. Honen aurrean, ezinbestekoa izango da euskal jendartea osatzen dugun eragile sozial, sindikal, politiko eta norbanakoen konpromisoa. Eskubideen bortxaketa etengabea eta umilazio saiakerak gaudituko dituen.

Durango erreprelari senideak

"Man(c)omunitatea"

Aurreko udal gobernuek ez bezala, oraingoan, Abadiño udal txekak kaleratutako aldizkarian hizkuntza erizpideek tratamendu egokia jaso dute; hau da, euskara ez dago diskriminatuta, erdararen proportzio berean agertzen baita. Alde horretatik beraien ekimena txalotzekoa iruditzen zaidan arren, gehiago zaindu beharko lukete bai ortografia bai idazkera bai espresibitatea, ez baitago artikulu bat bera ere akatsik gabe. Beraz, artikuluak idatzi ondoren, aldizkaria euskaraz ondo dakien norbaitek ikuskatu beharko luke. Jakin bezate, adibide bezala, euskaraz alfabetatua dagoen edonork (eskolako haurrak barne) dakiela euskaraz ez dela 'c' hizkia existitzen; beraz, 'Mancomunitatea' hitzaren ordez 'Mankomunitatea' izango litzateke hitz zuzena. Hortaz aparte, lotsagarria iruditzen zait diru publikoarekin argitaratutako aldizkari baten berririk ez izatea beste udal ordezkariak eta zer entpresak argitaratzen duen ez azaltzea. Ea hurrengo alerako akats ortografiko larriak zuzentzen dituzten eta berau egituratzeko eta argitaratzeko irizpideen berri ematen diguten.

Ibon Lizundia Leturiaga - Traña-Matiena-Abadiño

Sei hankako mahaia



Idoia Agorria
PSE-EE

Trikimailua ala tratua

Joan berri da Halloween, eta estelarik yankee-eneko festa egun horietako esaldirik errepikatua "Trick or treat" izaten da. "Trikimailua ala tratua" itzuli litekeen esaldia, hurrek gozokiak eskuratzeko erabiltzen dutena.

Durango, oposizioa osatzen dugun taldeok ez dugu gozokirik bilatzen aurrekontuen eztabaidan. Bizitzen ari garen krisi garai kezkarriotan, Udalarri familiarik kaltetuena babesteko eta enplegu zein etxebizitza babes-tuen politikak behingoz bultzatzeko baliabide ekonomikoak emango dizkion tratua da bilatzen duguna. Gaur-gaurkoz, PNVk ez du aurrekontu zirriborrorik aurkeztu, ez PSE-EEri behintzat, eta hori horrela izateari oso larria deritzogu. Gogoratu beharra dago udal aurrekontuak (inbertsioak eta zerbitzuak gauzatzea ahalbidetzen duen erreminta, besteak beste) prorrogatuak daudela 2007tik udal gobernuaren kudeaketa txarratik, eta Durango hiritarrek ez dute halakorik merezi. Horregatik plazaratu du PSE 2010eko aurrekontuak ahalbidetzeko bere jarrera, ardura politikoa erakutsiz, ordezkatzeko dudak alderdiak mahai gainean jarri dituen hiru ardatzak negoziatzea onartzen badu PNVk lehenago: baliabide sozial gehiago premiarik gehien duten sektoreentzat, gaur egun Durango dauden 1.474 langabetuak prestatu eta birziklatzeko aukera emango duen enplegu-politika aktiboa, eta BOEak berehala eraikitzea. Azken urteetan harririk ikusi dugu kudeaketa txarra zelan jabetu den Udalaz, 'Poltergeist' bat legez, herri-lanen hazkunde neurribakoekin (Hizkuntza Eskola, igerilekuak...) eta utzikierarekin Ordenantza Fisikalak aplikatzerakoan. Badirudi PNVren promesak kea direla eta hori ikusi da Erralde Hiltegia, +Dendak, DAZ eta hainbat elkar-terkin zerikusia duten akordioetan. Behingogatik, ez dugu trikimailurik nahi.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2009ko azaroaren 13a - 8. urtea - 351 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar, Miren Abasolo eta

Naiara Alzaga.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti

Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa:

Aitziber Basauri, Pello Mugarza,

Itsaso Esteban, Markel Onaindia

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Ana

Domínguez eta Kepa Aginako.

BAUTISTA ALTZARIAK ETA DEKORAZIOA-REN ALTZARIGILE IZARRAK PROMOZIOA

Altzarigile ugariko aukera
prestatu dugu zeure eskura
jartzeko **PREZIO IZARRETAN**
eta zure erosketagatik taloi bat
jasoko duzu opari gainera
gure dendetako edozein
produktugatik trukatzeko
edo bere prezioa
zuzenean merketzeko



**SUKALDEAK - BAINUGELAK
EGONGELAK - LOGELAK
HAURRENTZAKO LOGELAK - TAPIZAK
GORTINAK - STOREAK - ALFONBRAK
OHE-JANTZIAK - ARGIZTATZEA**

**DOAKO FINANTZIAZIOA
12 HILEAN
PROIEKTUAK ETA AURREKONTUAK
KONPROMISORIK GABE**

BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LLODIO - ABADIÑO

AGENDA >

> ANBOTOko agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Azaroaren 13an eta 15ean 'JOANEN ILARGIA'

Joan eta aita arrantzalea zoriontsu bizi dira uharte batean, ekaitz gau bateko itsaskolpe batek aitari osasuna kendu arte. Aitaren osasuna berreskuratzea da Joanen guraria; horretarako, ilargia lagun, itsas hondoraino joan behar badau be. Joanen emozinoak helerazteko tresna eszeniko denak ditu Teatre Nu-k: argia, hizkuntza plastikoa, musika, gorputz adierazpena... ikuslea hunkituko dauen amaiera ederreko ipuina dakarre Berriz eta Durangora.

ANTZERKIA

BERRIZ

>> 'Joanen ilargia' (Teatre Nu), azaroaren 13an, 17:30ean, Kultur Etxean.

DURANGO

>> 'Joanen ilargia' (Teatre Nu), azaroaren 15ean, 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

ERMUA

>> 'Entremeses cotidianos' (Izarraitz-Ermua), azaroaren 13an, 22:15ean, Lobiano kulturgunean.

BERBALDIA

ABADIÑO

>> Sexualitatea eta emakumea: 'Erotismo femenino', azaroaren 18an, 18:00etan, Errota kultur etxean. Hiru egun aurretik eskatuta haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dabe (94 681 87 74).

ELORRIO

>> 'Euskal Estatuaren Sorrera eta Zanaketa' berbaldi zikloa: 'Nafarroako Erresumaren sorrera' (Beñi Agirre), azaroaren 18an, 19:30ean, Iturri kultur etxean.

BESTEAK

ABADIÑO

>> Euskal Ezkontza, azaroaren 14an, 12:30ean, Traña plazan. De Norte a Sur elkarteak eratuta.

DURANGO

>> Mendiko materialen merkatu txikia, azaroaren 13an, 17:00etatik 21:00etara, eta, azaroaren 14an,

11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, Alpino Tabira mendizale elkarteak



Goienkalen daukan egoitzan. Saldu ez den materiala jasotzeko, hilaren 17an eta 19an, 20:00etatik 21:00etara, egoitzan bertan.

>> Kontuleku, abenduaren 19a artean, zapaturu, Udal Liburutegian: 11:00etan (0-3 urte) eta 12:30ean (4-6 urte). Bibliotekan emon leiteke izena (94 603 00 41 / liburutegia@durango-udala.net).

>> Astronomia Gelara bisita gidatuak, azaroko zapatuetan, 11:00etatik 13:30era, Izarra elkarteak antolatuta. Eguraldiak lagunduz gero, 20:00etatik aurrera astroak ikusteko aukera eskainiko dabe.

ERMUA

>> San Martin Azoka, azaroaren 14an,



11:00etatik aurrera, Orbe Kardinala plazan. Euskal Birusak eratuta.

IURRETA

>> Kofradietan zeharreko irteera, azaroaren 14an, Anderebide emakumeen elkarteak antolatuta.

ZORNOTZA

>> Gauero, gazteendako gaueko aisialdi programa (10-14 urte): 'Halloween' azaroaren 14an eta 15ean, 20:00etatik 23:00etara, Zelaieta zentroan.

DANTZA

DURANGO

>> Dantzaldi erromeria: Aiko taldeagaz, azaroaren 14an, 19:00etan, Plateruenean.



DEIAK

DURANGO

>> Genero biolentziaren aurkako elkarretaratzea. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Durangoko Plataforma Feministak deituta (Bilgune Feminista eta Andereak elkarteak).

>> Odola emoteko aukera, eguenero, 16:30etik 21:00etara, Anbulatorio Zaharrean. Mugarra odol-emaile elkarteak deituta.

IURRETA

>> Igerilekuetako, euskarazko, Udako Euskal Unibertsitateko eta musika ikastaroetarako diru-laguntzak eskatzeko, abenduaren 4a arte, Ibarretxe kultur etxean. Baita igerilekuetako abonuetarako be (94 620 03 42).

ERAKUSKETA

BERRIZ

>> Margoak eta grabatuak. Javier Gorosarri. Azaroaren 29a bitartean, Kultur Etxean.

DURANGO

>> 'Lekuak'. Amaia Alonso durangarraren lanak. Azaroaren 30a bitartean, Andragunean.

ELORRIO

>> 'Basoaren azala'. Argazkiak. Iturri kultur etxean.

>> XX. 'Errebonbillo' Margo Lehiaketako lanak, azaroaren 16tik 28a bitartean, Iturri kultur etxean.

ERMUA

>> 'Urdaibai: biosferako babesgunea', azaroaren 16tik 29a bitartean, Lobiano kulturgunean.

>> Euskal jantzi tradizionalak azaroaren 14an, 10:00etatik 12:00etara, Lobiano kulturgunean.

IURRETA

>> Margoak. Ignacio Ruiz de Arkaute

(Iurreta), azaroaren 16tik 27a bitartean, Ibarretxe kultur etxean.

ZORNOTZA

>> 'Esklabotza frankismoan: errepideak eta fortifikazioak mendebaldeko Pirinioan' (Eusko Ikaskuntza), azaroaren 16a bitartean, Zelaieta zentroan.

>> 'Impresiones'. Esteban Cabrito. Azaroaren 16tik abenduaren 12a bitartean, Zelaieta zentroan.

IKASTAROKAK

DURANGALDEA

>> Berbalagun, Durango, Elorrio, Zaldibar eta Berrizen (639 400 786 / durangaldea@aek.org)

DURANGO

>> Euskal Dantzak. Martitzenero, 19:30etik 21:00etara, AIKO taldearen eskutik, Plateruenean.

>> 'Aukera berdintasunari eta feminismoari buruz, hitz egiteko prest?', astelehenetan, 18:30etik 20:00etara, Andragunean. 'Emakumeak eta euskal literatura', egueneroan, 10:00etatik 12:00etara (94 465 70 92 / andragunea@durango-udala.net).

ELORRIO

>> Emakume eskola: Sexualitatea. Azaroaren 16, 23 eta 30ean, 18:00etatik 20:00etara.

>> Dantza modernoa, sabel-dantza, areto dantzak eta Karibeko dantzak. Iturri kultur etxean (94 603 20 32).

IURRETA

>> 'Bularretik mintzora': azaroaren 18an, 18:00etan, familiarendako, Udal Liburutegian (94 681 27 26 / biblioteka@iurreta.net).

>> 'Gure Barik' bertso eskola. Barikuro, 18:00etan (12-18 urte). Eguenero, 20:30ean, (18 urtetik gora). Gazte Asanbladak eratuta.

OTXANDIO

>> Yoga, gimnastika eta pilates, azaroan hasita. Emon leiteke izena (administrazioa.otxandio@bizkaia.org / 945 45 05 03 / 945 45 00 20).

IKUS-ENTZUN

ABADIÑO

>> Amazonas, mujeres

indomables' dokumentala eta solasaldia (Maria Galindo zuzendaria).

Azaroaren 13an, 19:00etan, Errota kultur etxean. Boliviako Mujeres Creando elkarteak ekoiztutako lana.



DURANGO

>> 'Los Sin Tierra' dokumentala, azaroaren 17an, 19:30ean, CNTren egoitzan.

ELORRIO

>> Mendi Astea: 'Madagascar' ikus-entzunezkoa (Iñaki Arenaza eta Amaia Etxebarria). Azaroaren 13an, 19:30ean, Iturri kultur etxean. Erdella mendizale taldeak eratuta.

ERMUA

>> 'Peaceable Kingdom' dokumentala, azaroaren 18an, 19:30ean, CNTk eratuta, Eskilarapeko Ateneoan.

IPUINAK

ERMUA

>> Helduendako ipuin-kontalaria: Carolina Rueda, azaroaren 17an, 19:00etan, Udal Liburutegian.

ZORNOTZA

>> Ipuin-kontalaria, azaroaren 14an, 12:00etan Liburutegian (umeentzat).

LEHIAKETA

BERRIZ

>> I. Eskultura Lehiaketa. Proiektua aurkezteko azaroaren 27a arte, Kultur Etxean. Saria: 18.000 euro (94 682 40 36 / 94 682 45 84).

DURANGALDEA

>> +Dendaken II. Film Laburren Lehiaketa. Durangoko komertzio txikiaren abantailak ondoen islatzen dituen lanarentzat, 1.000 euroko eros txartela; 500 euroko emongo dabe ikusleek. Azken eguna, azaroaren 23a —WMV, MPG edo FLV formatoetan—, Durangoko Plateruen Plazako egoitzan (94 681 68 37 / www.duer.es).

ELORRIO

>> XX. 'Errebonbillo' Margo Lehiaketa, azaroaren 14an, Iturri zoro elkarteak eratuta. Izen-emotea, 09:00etatik 10:00etara, Iturri kultur etxean. Margoak 14:30ean entregatuko dira. Sariak 18:00etan emongo ditue: 1.a 600 euro, 2.a 400 eta 3.a 300; herriko

anboto ASTEKARIAK Jorkun + Keu Agirretxeak
 ESKAINIKO DABEN KONTZERTURA JOATEKO
 SARRERAK ZOTZ EGINGO DITU.
 ZOZKETAN PARTE HARTZEKO:
 BIDALI ZURE IZEN-ABIZENAK astekaria@anboto.org-ra
 Irabazleen izenak Azaroaren 18an Anboto.Org webgunean (skrinmarrak) doguz.
 Anboto irabazleekin zuzenean jarriko du harremanetan.

onenarentzat 150 euro (ez dabe emongo, saria lehenengo hiruren artean badago).

» **VI. Mus Txapelketa**, azaroaren 14an, 16:00etan, Portalekua tabernan. Tabernan emon leiteke izena. Lehenengo laurendako egongo dira sariak.

LITERATURA

IURRETA

» **Munduko emakumeen literatur tailerra**. Astelehenero, 18:15ean, Udal Liburutegian.

» **Irakurleen Txokoa**, 19:00etan, Udal Liburutegian. Azaroaren 17an, gaztelerez; 18an, euskaraz.

MUSIKA

DURANGO

» **Aaron Burton & Los reyes del K.O.** Azaroaren 13an, 22:00etan, Plateruenean.



» **'Kantuaren Kantoia' berbaldi musikatuak: Petti.** Azaroaren 19an, 20:00etan, Plateruenean.



ELORRIO

» **Arriolako XX. Jazz Blues Jaialdia: Miralta, Sambeat & Kamaguchi Trio (Katalunia-Jazz)**, azaroaren



13an, 22:30ean, Ateneoan.

» **Arriolako XX. Jazz Blues Jaialdia: Spikedrivers (Erresuma Batua-Blues)**, azaroaren 14an, 22:30ean, Arriolako Ateneoan.

» **Arriolako XX. Jazz Blues Jaialdia: Bluedays (Valladolid-Blues)**, azaroaren 15ean, 21:30ean, Portalekua tabernan.



ERMUA

» **Santa Zezilia kalejira: Alboka musika eskolako ikasleak**, azaroaren 19an, 18:00etan. Alboka musika eskolak eratuta.

IURRETA

» **Musikaldia: Bogoroditsie eta**



Bartolome Ertzilla abesbatzak, azaroaren 14an, 19:30ean, Aita San Migel elizan. Mikel Deuna kultur elkarteak eratuta.

ZORNOTZA

» **Otros Aires: 'Vivo en otros aires'**, azaroaren 13an, 21:00etan, Zornotza Aretoan.



» **Kontzertu didaktikoa: 'Schubert (Impromptu)**, azaroaren 18an, 19:00etan, Zelaieta zentroan.

» **Jazz-blues zirkuitua: Jimmy Arrabit Trio (Euskal Herria)**, azaroaren 19an, 20:30ean, Zelaieta zentroan.



Azaroaren 14an, 22:30ean

ERRESUMA BATUKO BLUES DOINUAK, SPIKEDRIVERS TALDEAREN ESKUTIK

Erresuma Batuko blues doinuak izango ditue, Elorrioren, Arriolako XX. Jazz-Blues Jaialdiaren eskutik: 1992an sortu eban Spikedrivers taldea Ben Tyzack-ek, harrezkero zazpi LP kaleratuz. Blues primitiboagazko maitasunean oinarritutako musika da euren. Horretara, euren sustrai amerikarretan eta herrialde horretako musika herentzia aberatsean inspiratuz soinu fresko eta hunkigarriak eskaini ohi ditue.

ZINEKLUBA

ABADIÑO

» **Umeendako: 'Nocturna, abentura magiko bat'**, azaroaren 13an, 18:30ean, Txanporta kultur etxean.

BERRIZ

» **Helduendako zinema**, azaroaren 15an, 19:00etan, Kultur Etxean.

ERMUA

» **Umeendako: 'Ponyo amildegian'**, azaroaren 15ean, 17:00etan, Lobiano kulturgunean.

» **Kolonbiako zinearen zikloa: 'Perro come perro'**, azaroaren 19an, 19:00etan eta 21:30ean, Lobiano kulturgunean.

ZORNOTZA

» **'La caja de Pandora'**, azaroaren 17an, 20:00etan, Zornotza Aretoan.

ZINEMA

DURANGO

Zugara

Cuento de Navidad (3D)

Zuzendaria: Robert Zemeckis
barikua 13: 18:00 / 20:30
zapata 14: 17:00 / 19:30 / 22:30



domeka 15: 17:00 / 19:30
astelehena 16: 18:00 / 20:30
martitzena 17: 20:00

Luna Nueva


Zuzendaria: Chris Weitz
eguztiena 18: 19:30
eguztiena 19: 20:30

ELORRIO

Arriola antzokia

El secreto de sus ojos

Zuzendaria: Juan José Campanella
domeka 15: 20:00
astelehena 16: 20:00



Umeendako zinema


Harry Potter y el misterio del príncipe
domeka 15: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza aretoa

El secreto de sus ojos

Zuzendaria: Juan José Campanella
zapata 14: 22:30
domeka 15: 20:00
astelehena 16: 20:00



Umeendako zinema

Pequeños invasores
domeka 15: 17:30

BOTIKAK

Barikua, 13
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
Zapata, 14
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Campillo / San Roma / De Diego / Unamunzaga / Balenziaga (Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)*
09:00-22:00
• Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)
Domeka, 15
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
Astelehena, 16
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 -Durango) 09:00-22:00
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)
Martitzena, 17
09:00-09:00
• Unamunzaga (Murrueta Torre 2C - Durango)
Eguaztiena, 18
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
Eguztiena, 19
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
09:00-22:00
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112	UDALAK	Txanporta KE94 620 36 47
DYA94 620 28 00	Abadiño94 621 55 30	Errota KE94 466 94 16
Gurutze Gorria94 681 09 49	Atxondo94 682 10 09	Gorabide94 681 24 35
Osakidetza94 600 72 00	Berriz94 682 45 84	Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Ertzaintza94 466 93 00	Durango94 603 00 00	Nekazal bulegoa94 681 15 20
Suhiltzaileak112	Elorrio94 658 27 12	Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
GARRAIOAK	Garai94 681 63 93	Butanoa (UME).....94 681 08 77
Euskotren902 54 32 10	Iurreta 94 620 12 00	Araztegia94 620 28 00
Durango94 681 02 32	Izurtza94 681 35 48	Foru Ogasuna.....94 681 07 42
Bizkaibus94 448 40 80	Mallabia943 17 14 61	INEM Durango94 681 12 96
Pesa902 10 12 10	Mañaria94 681 89 98	Gizarte Segurantz 94 681 49 58
Continental Auto945 286 466	Otxandio 945 45 00 20	Epaitegiak.....94 603 00 51
TAXIAK	Zaldibar94 682 70 16	KIROLDEGIAK
Abadiño946 814 470	UDALTZAINGOAK	Igerilekua
Matierna606 459 988	Abadiño94 621 55 33	Astola94 620 29 29
Durango Geltokia.....946 811 001	Berriz94 682 40 36	Igerilekua
Goco Tour946 202 860	Durango94 603 00 10	Atxondo94 623 14 38
Tele Taxi944 102 121	Elorrio94 682 02 18	Berriz94 682 43 74
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026	Iurreta94 620 08 88	Durango
Elorrio Geltokia946 820 040	BESTELAKOAK	(Landako).....94 621 51 30
J.L. Uriarte670 402 002	Arriola94 658 31 92	Durango
I. Estebez670 678 273	San Agustin94 603 00 21	(Tabira)94 621 51 50
M Galeano.....946 582 854	Zornotza Aretoa94 630 01 68	Elorrio94 682 10 27
Iurreta946 201 565	Gazte informazioa 94 603 00 30	Zaldibar94 682 73 74
Taxi auzunea688 618 690		

EGURALDIA

13	21° BARIKUA	☁
Hegoaldeko haizea izango dogu hizpide. Erdi mailako hodeiak eta goi-hodeiak izango dira nagusi. Haizeak indartsu joko dau. Temperatura atsegina izango da, maximoak 17 eta 22 °C artean kokatuz.		
13	21° ZAPATUA	☁
Fronte hotz barri bat helduko jaku eta eguraldiak txarrera egingo dau. Goizaldean eta goizeko lehen orduetan hego-mendebaldeko haize zakarra ibiliko da. Gauean hegoaldeko haizea sartuko da, berriro.		
10	21° DOMEKA	☁
13	17° ASTELEHENA	☁
14	21° MARTITZENA	☁

OSASUN GIDA

PEDAGOGIA



UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA

Laguntza goiztiarra, Psikomotrizitatea,
Fisioterapia, Logopedia

Juan de Olazarán, 1 behea
48200 DURANGO

tf: 94 466 83 70 - 615 782 090

FISIOTERAPIA




FISIOTERAPIA ETA ERREHABILIZAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezin eustea, traumatologia, kirola, trafikoko istripua,
drainatze linfatikoa (masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

PODOLOGIA



JON GERRIKAETXEBARRIA PENÁ

OINETAKO KONTSULTAK:
oinen gaitzak, ortopedia eta zirurgia

Ermodo, 2- 1. eskuma
48200 DURANGO

tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51



HIRU FISIOTERAPIA

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00



GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOA
Kiroprudia, Onikopatia, Alterazio
Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO

tf: 94 620 36 30



J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
ortodontzia

Zumalakarregi 18- 1. ezk.
48200 DURANGO

tf: 94 681 22 00

LOGOPEDIA



- Psikologia
- Logopedia
- Psikoterapia
- Fisioterapia
- Bach loreak

ume eta helduentzako

Txibitena, 9A - behea
48200 DURANGO

tf. 94 681 21 00

mug.: 669 612 362

ahozabal_zentrua@yahoo.es

ESTETIKA



ESTETIKA TRATAMENDUAK

Obesitate-zelulitis;
Laser: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinen kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena 6
48200 DURANGO

tf. 94 681 03 87

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52

PSIKOLOGIA



JON ARRUBARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psicologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

KIROLAK >



Argazkia: Ana Dominguez

Beltzena zirudien unean

Durango Ilarduya ligako lehenengo hiru partiduak galduta zelairatu zen Arri-pausuetara joan zen asteburuan. Beraz, Getxoren kontrako norgehiagokak bazuen premiatik apur bat. Gogoia eta borondatea ipini arren, partidua aldapa gora jarri zitzairen. Lehia amaitzeko ordu laurdenaren faltan, bederatzita puntu azpitik zihoazen. Durangarrek, ordea, ez zuten etsi eta egoera beltzen zegoen unean, entsegu bi egin eta partiduari buelta eman zioten (22-21).

Hain zuzen ere, lehia azterterako orduan, Aratz Gallastegi entrenatzaileak taldeak azken segundora arte erakutsitako fedea azpimarratu du: "laz eskatzen nuen konpromisoa lortzen ari gara. Mentalki jarrera ona daukagu. Horrela izan da liga

hasieratik, nahiz eta emaitzek ez diguten lagundu. Garaipen honek beti azkenera arte lanean jarraitu behar dugula ikusteko balio du".

Hala ere, Hernaniren, Bartzelonaren eta Universidad de Vigoren kontrako porrotek taldeak zer hobetua baduela erakutsi dute. "Esaterako, Getxoren kontra, aurkariaren ostikada luze-etan baloia hartzen trakets samar ibili ginen. Horrez gainera, jabetza errazegi galtzen dugu, eta hankako jokoan ere badugu zer hobetu".

Asteburu honetan hirugarren dagoen Barcelona Unibertsitarioren kontra jokatu dute, kanpoan. Kataluniarrak hirugarren daude sailkapenean, eta DRTk baino bost puntu gehiago dituzte.

Maila bat beheragoko DRTren taldeak ere partidu zaila du, Gaztedi bigarren sailkatuaren zelaietan. Elorriok, aldiz, garaipena lortu behar luke etxean (bihar, 16:00etan), Universidad de Cantabriaren aurka.

Azkenik DRTren emakumeen taldeak Gaztedi du aurkari. Durangarrak hirugarren daude, Getxorekin puntuetara berdinduta eta Gaztedirengandik lau puntura. Beraz, partidu horretan lidertza dago jokoan. ■ J.D.

Denboraldiko lehen garaipena lortu du gizonen talde nagusiak

24 Gimnasia erritmikoa protagonista

Asteburuan Euskalgyn09 gimnasia erritmiko erakustaldi-gaz gozatzeko aukera izango dugu Landako Kiroldegian. Almudena Cid etorriko da, besteak beste

25 Benetako ordua Olazarren

Kanporaketa faseek pilotaririk onenak bereiztu dituzte. Sailkatu diren pilotariek multzoburuen kontra jokatu dute. Iritsi da onenak borrokan ikusteko sasoa



Ortzi Acostagaz batera osatu dauen lau minutuko erakustaldia erakutsiko dau gasteiztarrak.

“Apurka, ilusino barriak deskubritzen nabil”

Euskalgym09 jaialdia ospatuko dabe bihar Landako kiroldagian. Gimnasia erritmikoan gaur egun dagozen eta izan diren izar handienak gonbidatu ditue. Almudena Cid etorriko da, besteak beste. Orain urtebete itzi eban gimnasia arlo profesionalan. Biharko erakustaldiak ilusino handia egiten deusala azaldu deusku: “Publikoagaz barriro hartu-emonen ipintzeko balioko deust!”

Durango ezagutzen dozu? Zer erakustaldi eskainiko dozu?

Behin baino gehiagotan egon naz Durangon. Erakustaldian lau bat minutuko koreografia eskaini dot, Ortzi Acostagaz batera. Ortzi bost urtean *Circo del Sol* ikuskizunean ibili da.

Irailean urtebete bete zen erretiroa iragarri zenduenetik. Zertan aldatu da zure bizitza?

Gimnasia alde batera itzita, neure buruaren bila jardun dot urte honetan. Hile gogorak izan dira, nire bizitzan inportanteenetakoa zen zera falta jatalako: nire lanbidea; gimnasia erritmikoa. Halan be, apurka-apurka ilusino barriak izan daitekezenak aurkitzen nabilela uste dot. Luzaroan nire dedikazioa erabatekoa izan dela konturatu naz; orain, esaterako, askorendako ohiko diren gauzak egiteko denpora daukat: eguerdian kafea hartzeko denpora, esaterako. Eta deskubrimenduak balira legez disfrutatzen ditut.

Gimnasta profesional zinenean, helburuak beti finkatuta zeunkazen. Kostatu egiten da erronka eta helburu barriak aurkitzea?

Bai. Gimnasia itzi aurreko urtean erretiro ondorena prestatzen ibili nintzen, baina gehien kezkatzen ninduen gimnasia nire ibilbide profesionaleko unerik onenean iztea zen. Orain, gimnasiak bete nauen beste beteko nauen zerbitu bila nabil. Ez dot uste maila bereko ordezkorik aurkituko dodanik, baina badagoz erakartzen naberen gauzak: antzezpina, esaterako. Orain film labur batean sartuta nago, eta klaseak hartzen nabil, formakuntza osatzen. Ez dot presarik, urratsak ondo emon gura ditut.

Aspertzeko denporarik, behintzat, ez dozu eduki. Telebistako programetan ikusi zaitugu.

Nire buruari buruzko alderdi barriak ezagutu nituen *El Hormiguero*n. *Guerra de sesos* saioan, kalean erreportajeak egitea zer lan gatxa den desku-

britu neban, baina ezin naz kexatu, jentea ondo portatu zen.

Gimnasta legez zeunkan egunerokotasuna faltan botaten dozu?

Ez. Nire kirol ibilbideagaz oso asebeteta sentitzen naz. Arago: batzuetan, goizetan esnatzen entrenatzera joan behar dodala uste izaten dot; ezetz konturatzen, “Uf, ze ondo, gaur ez dot minik edukiko gorputza behartzen ibilita”, esaten dot. Sentitzen dodan bakarria hutsunea da, barru-barruan, asumitu

☞ Gimnasia alde batera itzita, neure buruaren bila jardun dot ☞

beste erremediorik ez daukadana. Zulo hori ez dau gimnasiak beteko, baina bai beste gauza batzuek. Biharko erakustaldiak publikoagaz barriro hartu-emonetan ipintzeko balioko deust, eta hori asko gustetan jat!

Gazte gaztetatik gogor entrenatu dozu. Ez dozu ohiko nerabezaroa izan.

Nerabezaro diferentea izan da, inork inposatzen ez deusuna,

norberak aukeratzen dauena, nahiz eta oso gaztea izan. Gogon daukat behin paperak nituela be entrenatzera joan gura nebal, entrenatzailea nitaz harro sentitu zeiten gura nebalako.

Lorpenak perspektibaz begiratu baloratzen ei dira ondoen. Zure lorpenen jabe zara?

Bai. Baietz uste dot, asko kostatu jatan arren. Egia esanda, bide gatxa izan da. Urrats barri bat emoten nebanean banekien askoren erreferente izango nintzela. Norbera izanez, nire modukoa izatea gura eben gatzetxo denena.

Euskadik harrobi ona dauka gimnasia erritmikoan?

Hori bihar ikusiko dot Euskalgym jaialdian!

Luzaroan entrenatzaile izan dozun Iratxe Aurrekoetxea barik, lortu dozuna lortuko zenuen?

Ez. Nire bizitzako une askotan behar-beharrezko izan dot. Onena hauxe da: ibilbidearen azkenean, biok sentitu dogu gimnasia independentea izatea lortzea, hori... gure lanbideko heldutasunera heltzea izan dela.

Esan egia: gorputzeko hezurrek igartzen dabe erretiroa?

Ez pentsatu. Itzi aurretik be kexatzen ziren! ■ J.D.

Gotzon Gomez

• Errugbi entrenatzailea



Entrenamenduen garrantzia

Gauza jakina izan arren, oraingoan entrenamenduen garrantzia azpimarratzea gura neuke. Entrenamenduen inguruan badira hainbat teoria, baina denok argi daukiena zera da: entrenatzea ezinbestekoa da, batez be, kirola lehiatzeko egiten denean, eta gehiago talde-jokoa denean.

Entrenatzeak hainbat eskakizun izan arren, bi arlo edo atal nabarmenduko neukez: kontzentrazioa eta koordinazioa. Kontzentrazioa, ezinbestekoak diren oinarriak eta azalpenak barneratzeko, eta ondoren praktikan ipintzeko. Koordinazioa pertsona bakoitxak berezko dauen dohaina da, baina entrenamenduetan lantzea funtsezkoa da, ahal den heinean hobetu ahal izateko.

Badago beste faktore inportante bat: intentsitatea. Zergaitik? Entrenamenduak partida erabakiorrena balitz moduan hartu behar doguz, ez entrenamenduen tarte osoa, baina bai jokaldiak eta taktika lantzeko ordua; aste bitartean landutakoa, intentsitatea eta jarrera, asteburuko lehiari islatuko da.

Aitatutako guztia aurrera eroateko ezinbestekoa dogu entrenatzailea. Bere esku dago aurreko guztia garatzea, jokalarien motibazioa eta intentsitatea mantentzea, azalpenak erraz eta zuzen emotea, jokalarien arteko hartu-emonak zaintzea eta indartzea, eta, zelan ez, bakoitxaren dohainak eta akatsak bultzatzea eta zuzentzea. Hau da, kalitateko entrenamenduak prestatzea.

Lan gatxa dogu aurretik. Sarritan markatutako idealera hurbiltzea ezinezkoa izango den arren, posible dela pentsatu behar dogu; ahaleginduko garela!

Adituarentxokoa

Euskalgym09 >

Iraganeko eta gaur egungo izarrekin gozatzeko aukera daukagu Landakon

Gimnasia erritmikoan izan diren izarretako asko etorriko dira bihar Durangora. Almudena Cidekin batera, Eugenia Kanaeva, Melitina Staniouta, Irina Risenon eta Liubov Charkashyna, besteak beste. Denak erreferente dira edo izan dira gimnasia erritmikoan. Igazko arrakasta ikusita, Bilbon be erakustaldiak egingo ditue domekan. Igaz denak txunditu zituen Anna Bessonovak ezin dau Durangora etorri, baina La Casillan egongo da.

Jaialdia 14:30ean hasiko da. Euskal Autonomia Erkidegoko bederatzita taldeez gainera, Asturias, Galizia, Kantabria, Katalunia, Madril eta Nafarroako taldeak dotoz. Hauen ondoren, 18:00 inguruan, hasiko da Ciden eta enparauen erakustaldia. Ekinena 20:00etan amaituko da sari banaketagaz.

Multzoburuak lehian sartuko dira Olazar txapelketaren azken txanpan

Lau t'erdian eta binaka, lehia parekatuak itxaroten dituzte final-laurdenetan



Mendinueta arabarrak (eskuman) 22-14 kanporatu zuen Quina gipuzkoarra. Kepa Aginako

XXII. Olazar Pilota Txapelketa une erabakiorretara iritsi da. Atzo hasi eta datozen aste bietan finalaurdenetako lehiak jokatu dituzte. Multzoburuak txapelketari ekingo diote, eta, oro har, eurak dira faborito. Behetik datozenak, ordea, zerbaitegaitik heldu dira dauden tokira, eta lanak emango dituzte.

Datorren egunean Iñaki Larrinaga elorriarrak eta Idoatek

Larrinaga elorriarrak Idoategaz jokatu du, Larrañaga eta Loiolaren aurka

Kulturalak ez du galdu azken bost jardunaldietan

Bolada onean dago Durangoko Kulturala. Bost jardunaldi damarata jarraian galdu barik. Gainera, azkeneko biak irabazi egin ditu: Salvatierraren zelaian 1-3, eta etxean Aretxabaletaren kontra 2-1. Azken 15 puntuetatik bederatzi batu ditu, eta sailkapenaren erdira igo da.

Merezitako eta sufrututako garaipena izan zen Aretxabaletaren kontrakoa. Penalti biren bidez sartu zituzten golak, baina bigarren zatia hamarrek jokatu zuten, Txumaik txartel gorria ikusi ondoren. Aretxabaletak markagailua estutu arren, Axier Intxaurrearen gizonak hiru puntuak eutsi zieten.

Gaur Leioaren kontra jokatu du. Leioak ere azken bi jardunaldietan irabazi egin du. ■ J.D.

Hiru berdinketa eta garaipen bi lortu ditu Axier Intxaurreak zuzendutako taldeak

Lan erdietan, Zaldi Baltza indartsu xakean

Bizkaiko Banakako Xake Txapelketako sei jardunaldietatik hiru jokatu, Zaldi Baltzako xakelariak lider daude lau mailatatik bitan. Partidak Elorrioren jokatu dituzte zapaturo.

Lehen Mailan Alberto Sardón eta Aitor Arabiotorre elorriarrek eta Jose Alfaro durangarrak lidertza partekatzen dute 2,5 puntugaz. Laugarren beste elorriar bat dago; Karmelo Gallastegi. Asteburuan elkarren kontra jokatu dute: Arabiotorre-Alfaro eta Sardón-Gallastegi. Galtzaileek mailaz igozko ia aukera guztiak galdu dituzte.

Bigarren Mailan, Gumer Moreno durangarra da liderra hiru puntugaz. Puntu bigaz beste bost xakelarik segitzen diote. Puntu berak ditu Hirugarren mailako lider Lorien Barbero elorriarrak ere. Puntu birekin daude Elorriko beste xakelari bi: Paul Gallastegi eta Aitor Garcia.

Gorengo Mailan, Alain Prietok ez du oraindik partidarik irabazi. ■ J.D.

Larrañaga eta Loiola izango dituzte aurrez aurre. Lehenengoak dira faborito, eta, ondo bidean, finala jokatzeko "aukera handiak" ikusten dizkio Enrike Agirrebeitia Zaldua Kirol Elkarteko Pelota Taldeko kideak. Lau t'erdian Zabaletak eta Aurtentzek —honek Frontisek fitxatu berri duen Eneko Perosanz kanporatu zuen 22-21— lehia irakia dute.

Ekaitzak baldintzatutako rallyan, Apalantza onena

Ramon Apalantzak eta Aitzol Lejardik irabazi zuten (Mitsubishin WRCagaz), joan zen asteburuan, 'Balcón de Bizkaia' rallya. Iñigo Alustiza eta Julio Muriedas geratu ziren bigarren 52 segundora. Txus Jaiok hirugarren amaitu zuen, baina Euskadiko Rallyen Txapelketan sartzen ez zenez, Arkaitz Urangak eta Ibon Sarasuak (1.20ra)

Atzo gauean lau t'erdiko eta binakako partidu bana jokatu ziren. Kaiolan, Azpiri elorriarrak Albizu izan zuen aurkari. E-mailtzak www.anboto.org webgunean ikusgai daude.

Finalerdiak abenduaren 3an, 10ean eta 17an jokatu dituzte. Finalak, binaka zein lau t'erdian, abenduaren 31n izango dira, urtero legez. ■ J.D.

Abenduaren 3an, 10ean eta 17an jokatu dituzte finalerdiak

Agenda

FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Berriz - Getxo

Domekan, 11:30etan,

Berrizburun

LEHEN ERREGIONALA

(gizonak)

Elorrio - Leioa B

Zapatuan, 16:00etan,

Eleizalden

BIGARREN ERREGIONALA

(gizonak)

Abadiño - Berango

Zapatuan, 15:30etan,

Astolan

HIRUGARREN ERREGIONALA

Extremeno - Elorrio B

Zapatuan, 18:00etan,

Tabiran

LEHENENGO ERREGIONALA

(emakumeak)

Iurretako - Gernika

Zapatuan, 17:00etan,

Larrakozelain

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL B MAILA

Elorrioko - Jarrilleros

Zapatuan, 18:00etan,

Elorrioko kiroldegian

EUSKAL LIGA

Sasikoa B - San Jorge

Domekan, 12:00etan,

Landako kiroldegian

LEHEN ERREGIONALA

Mallabia Bastida - Ibalzabal

Domekan, 17:30etan,

Zaldibarko kiroldegian

BIGARREN ERREGIONALA

Mendibelz - Kurutzlaga B

Zapatuan, 15:45etan,

Tabiran

Dantxari - Lagun Onak B

Zapatuan, 17:30etan,

Iurretako Lanbide Heziketako Institutua

Gu Lagunak - Zerbezotxo

Domekan, 12:00etan,

Tabiran

LEHEN MAILA (emakumeak)

Kulturala - Goiztiri

Barikuan, 20:00etan,

Tabiran

SASKIBALOA

LEHEN ERREGIONALA

(gizonak)

Julza-Zaldua - Txurdinaga

Zapatuan, 18:30etan,

Zaldibarko kiroldegian

Anbotopeko - Centro Salmantino

Zapatuan, 18:00etan,

Tabiran

LEHEN ERREGIONALA

(emakumeak)

Tabirako - Ugeraga

Domekan, 12:00etan,

Landako kiroldegian

BIGARREN ERREGIONALA

Julza Zaldua - Paules

Zapatuan, 16:30etan,

Zaldibarko kiroldegian

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

DIBA

KOOPERATIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

AMALURRA[>]



Mancomunidad de la Merindad de Durango
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa



Ingurumenagazko eragina txikitu ahal izateko inbertsinoa

Hondakin mota ugari erabili ahal izango da lantegian: adarrak, kimuak, sustraiak, zuhaixkak, landare gaixoak...

Basoko hondakinen kontsumoa 40.000 tona igoko da, urteko kontsumoa 100.000 tonara ailegatuz

Datozen bi urteetan Smurfit Kappa Nervionek 25 milioi euro inbertituko ditu lurretako lantokian, ingurumenari begira

Urretan egoitza daukan Smurfit Kappa Nervion enpresak 25 milioi euroko inbertsinoa egingo dau, bere ekoizpenak ingurumenagazko errespetu handiagoa izan daian. Arriandiko papelera ezagunak energia berriztagarrien aldeko apustua egingo dau, eta, horretara, usain txarrak murrizteko saiakera egingo dau.

Lurretako lantegian zura erabiliz zakuak egiteko papera ekoizten da. Urtero, 150.000 tona saltzen dira; %80 baino gehiago atzerrira bideratzen da. Inbertsinoaren helburua lantegian lurrun eta argindar gehiago sortzea da, baita dagoen makineriaren eragingarritasuna gehitzea eta basoko hondakinak erabiltzeko ahalmena handitzea. Gaur egun, lantegiak 80.000 MWh sortzen ditu urtero, basoko biomasa erabiliz. Bio-

masa mota bi erabiltzen direla azaldu dabe arduradunek: zurak daukan azala, eta zura egosita lortzen den likore beltza.

Baso garbiagoak

Energia gehiago produzitzeko, basoko hondakinak erabiliko ditue. Gainera, modu honetan, basoak garbiago mantentzea lortu leiteke. Gaur egun, hondakin horreek basoan gelditzen dira, eta baserritarrek dirua gas-tatu behar izaten dabe garbiketa lanak egiteko. Inbertsino honek gaz, argindar garbiagoa lortuko da, eta horrez gainera baso jasangarriagoak bermatuko dira.

Hondakin mota ugari erabili ahal izango da lantegian: adarrak, kimuak, sustraiak, inausketa hondakinak, zuhaixkak, landare gaixoak... Erregai fosilekin konparatuz gero, abantaila ugari

dauka metodo horrek: CO2 eta SO2 isurketak nabarmen txikitzen dira.

Proiektu honi eskerrak, basoko hondakinen kontsumoa 40.000 tona gehituko da, urteko kontsumoa 100.000 tonara helduz. Energia sorrera %40 handituko da, urtero 115.000 MWh ekoiztuz. Inbertsinoa, gehienbat, basoko soberakinak birrintzeko, lantegiko laba egokitzeke eta lurrin-turbina berri bat erosteko aprobetxatuko da. Guztira, 20 milioi euro.

Enpresako arduradunen eritziz, "inbertsino honek Smurfit Kappa taldeak lurretako lantegiaren etorkizunaren alde apustu garbia egiten dauela erakusten dau".

Bestalde, hain ezagunak diren usain txarrak murrizteko 5 milioi euro erabiliko ditue.

IRAGARKI TAULA

saldu, erosi, alokatu, lanean hasi, lana eskaini, ...
aurkitu bilatzen ari zarena eta iragarri nahi duzuna



ESKAINTZAK

Neska euskalduna edozein lan mota egiteko prest, edozein ordutegitan. Esperentzia la zerbitzari bez umeekin...

ERRENTAN EMAN

Durango. Alde zaharreko etxe bat alokagai. Guztiz barrizatuta dago eta hiru gela d 750 euro...

SALDU

Fun roller autokarabana salgai. 2003 urtekoa. 54 km. Motorra Fiat 2.8 JTD 127 zaldi. 24. euro...

HARTU

Neska euskalduna behar dogu 10 urteko neska bati klase partikularrak emateko (ingeles beste irakasg batzuk)...

BEREZIAK

Autoa konpartitzen dut Gasteiztik Otxandiora joateko, astelehenetik ostegunera. 09:30 aurrera...

OPARI

Artzai-txakurrak. Hilabete bateko kuma oparitzen dut. Arra da. Oso polita. ...

e-mail: anboto@anboto.org
Tel.: 94 681 65 58

IRAGARKIAK

LANA

- Eskaerak
- Eskaintzak
- ETXEBIZITZAK**
- Salgai
- Errentan eman
- Errentan hartu
- Pisua konpartitu

IRAKASKUNTZA

- Klaseak hartu
- Klaseak eman

MOTORRA

- Salgai
- Erosi

LOKALAK




- Errentan eman
- Errentan hartu

ANIMALIAK

- Salgai
- Erosi

BESTEAK

- Berba egin
- Salgai



Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak ostiral horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

DOAKO IRAGARKIAK

(partikularrak):

- Bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org edo
- Deitu 94 681 65 58 telefonora

ORDAINDUTAKO IRAGARKIAK (ez profesionalak):

Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

zaintzeko. Esperientzia askorekin. Tel.: 688 676 588 / 94 658 33 32

Neska euskalduna ume txikiren bat zaindu, euskara klase partikularrak eman edo mintzamina lantzeko eskaintzen da. Tel.: 686 809 628

Neska euskalduna goizetan, 10:00etara arte, etxeko lanak egin zein umeak eskolara eramateko prest. Tel.: 615 726 206

Elorrio. Haur Hezkuntzako teknikaria arratsaldetan umeak zaintzeko prest, astelehenetik ostiralera. Neska euskalduna eta esperientziaduna. Tel.: 688 640 604 (Lohitzune)

Neska euskalduna klase partikularrak eman zein umeak zaintzeko prest. Kotxea daukat eta Haur Hezkuntzako titulua ere bai. Tel.: 680 274 327

Esperientziadun neska euskaldunak klase partikularrak ematen ditu Berrizen, Haur Hezkuntza, DBH zein Batxilergoko ikasleentzako. Goizez umeak ikastolara eramateko ere prest. Tel.: 605 763 942

Argazkilareri esperientziaduna ezkontza eta bestelako ekitaldietan argazkiak egiteko prest dago. Prezio onean. Tel.: 680 592 903

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Otxandio. Pisua salgai. Lau logela, egongela, sukaldea, komuna, balkoia eta despentsa. Tasatutako prezioan. Tel.: 675 905 227

Elorrio. Etxebizitza salgai herri barruan. Igogailua, bi logela, bi komun, sukalde jantzia eta trastelekua. Tel.: 657 793 993

Abadiño. Etxebizitza salgai Zelaietan. Sukaldea, bi logela, egongela, despentsa, balkoia eta bi komun. 90 m2. 234.000 euro. Toki lasaian. Garajea aukeran. Tel.: 652 750 293

Durango. Etxebizitza salgai erdigunean. Bi logela, sukaldea, egongela, komuna eta ganbara. 80 m2. 12 urte. Tel.: 656 711 625 edo 659 768 037

Abadiño. Etxebizitza salgai Muntzaratz auzoan. 3 logela, egongela handia, 2 komun, sukaldea, trasteleku txiki bi etxean eta ganbara. Berriztatua. Altzariekin, nahi izanez gero. Lokal komertziala aukeran (kotxe birentzako lekua). Tel.: 667 882 338

Pisua salgai Errioxan, Casolareinan. 20 m2-ko txokoarekin. Tel.: 615 789 859

Mallabian. Baserrira salgai 20.000 metroko lur zatiarekin. Oso toki polita. Tel.: 655 702 647.

Berriz. Pisua salgai erdigunean. 3 logela. 70 m2. Orintsu erreformatua. Tel.: 653 709 695

ERRENTAN EMAN

Durango. Pisua alokagai. Komuna, sukaldea, lau logela eta egongela. Tel.: 657 795 495

Elorrio. Etxebizitza alokagai herri barruan. Igogailua, bi logela, bi komun, sukalde jantzia eta trastelekua. Tel.: 657 793 993

Elorrio. Lokal bat alokatzen da etxebizitza izateko. 150 m2. Nahiko merke. Tel.: 688 632 078

Abadiño. Pisua alokatzen da Muntzaratzen. Jantzia, bi logela, bi komun eta garajea. Eraiki berria. Tel.: 687 579 705

ERRENTAN HARTU

Elorrio. Pisu bila nabil. Jantzita edo erdi jantzia. Berogailuarekin. Tel.: 94 658 21 91.

Abadiño. Pisua alokatuko nuke Zelaietan. Tel.: 699 295 914

Durango. Semeagaz konpartitzeko alokairuko pisu baten bila nabil. Tel.: 605 749 443

KONPARTITU

Durango. Etxebizitza konpartitzeko pertsona bat behar da. Alde zaharrean. Lehenbailehen. Tel.: 656 771 662

Etxea konpartitzen dut. Logela bat errentan. Tel.: 657 700 321 (Roman).

Zaldibar. Pisukide gazte baten bila nabil pisua konpartitzeko. Tel.: 685 724 619

MOTORRA

SALGAI

Mazda 6 Diesel salgai. Familiarra. 136 cv. Gehigarriekin. 6 urtekoa. Oso aukera ona. Prezioa negoziatzeko prest. Tel.: 636 237 730

Quad-a salgai. Kawasaki 400 KFX. Gutxi erabilitakoa. Gehigarri askorekin. Aurrealde eta atzealdeak zabalera emanda ditu. Bi urte eta erdikoa. Tel.: 649 402 518

BMW 318 IT salgai. 98. urtekoa. Gasolinakoa. 143 zaldi. Pack M. 171.000 Km. 4.500 euro, negoziagarria. Tel.: 662 040 493

Opel Astra 150c. Diesel salgai. Familiarra. Gehigarri guztiarekin. 2005eko. Egoera oso onean. Prezioa negoziagarria. Tel.: 650 874 594

LOKALAK

SALGAI

Durango. Garaje itxia saltzen dut. 28.5 m2 ditu. Maristak ikastetxe aurrean (Tronperri kalea). Tel.: 667 851 508 (Goizalde)

Elorrio. Pabiloi bi salgai ditut. Bata 630 m2-koa eta bestea 360 m2-koa. Tel.: 657 793 993

ERRENTAN EMAN

Durango. Musika taldeentzako lonja bat alokagai. Insonorizata. Gela bi ditu. Tel.: 615 750 039

Durango. Garaje itxia alokagai Alde Zaharretik gertu. Tel.: 665 729 936



IBAIZABAL IKASTOLA

Ibaizabal Ikastola Koop. Elk.-ko Artezkari-tza Kontseiluak honako hau erabaki du:

OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Eguna: 2009ko azaroaren 25a
Ordua: Arratsaldeko 18:30, lehenengo deialdia. 19:00ak, bigarren deialdia.
Lekua: Kooperatibako Areto Nagusia (Intsaurrondo kalea, 54 Durango)

AZTERGAIEN ZERRENDA:

1. Akta hamabost eguneko epean onartzeko bazkide bi izendatzea
2. 2008-2009 ikasturteko kudeaketaren azterketa eta kontuen onarpena, bidezkoa bada.
3. Emaizten egozketa
4. 2009-2010 ikasturterako Kudeaketa Planaren azalpena eta aurrekontuen onarpena
5. Artezkari-tza Kontseiluko kideen berriztapen partziala
6. Durangaldeko Ibaizabal Kooperatiba Elkar-ta EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK, KOOP. E. Europar Kooperatiban bazkidetzea onartzea, bidezkoa bada
7. Galderak eta eskaerak

LANA

ESKAERAK

Emakume bat behar da umea eskolara eramateko (07:30etik 09:00etara) eta etxeko lanak egiteko (ordutegia zahazteke). Tel.: 656 764 504

Garai. Umeak zaintzeko pertsona bat behar da. Astelehenetik ostiralera arte, egun osoan. Kotxea beharrezkoa da. Tel.: 618 822 048

Neska gazte euskalduna behar da asteburuetan tabernan lan egiteko. Tel.: 94 673 15 51

Berriz. Umea zaintzeko pertsona behar da. Tel.: 619 626 670

llepaintzailea behar da egun erdiz lan egiteko, arratsaldez. Tel.: 94 682 68 83

Durango. Merkataritzako agentea behar da bezeroen bilketa eta mantenuerako. Derrigorra da esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.449. SARTU.

Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Merkataritza agentea behar da aseguruaren informazio eta salmentarako. Derrigorra da heziketa ertaina izatea, ordutegi malgua izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.455. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Enpresa batek kazetaria behar du euskaraz lan egiteko. Derrigorra da Kazetaritza lizentziatua izatea, EGA izatea, Quarkxpress eta Photoshop programak menderatzea eta Durangaldean bizitzea. 8 orduko lanaldia, 2009ko urriaren hasi eta 2010eko iraila arteko kontratuarekin. Erreferentzia: 6.555. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Enpresa batek kazetaria behar du hedabide digital baterako. Derrigorra da heziketa eta esperientzia izatea, euskara eta webmasterra menperatzea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 8.316. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

ESKAITZAK

26 urteko neska euskalduna astean zehar goizetan lan egiteko prest, umeak zaintzen edo antzeko zerbaite-tan. Tel.: 607 340 659

Neska euskalduna, portalak eta tabernak (gazez) garbitzeko prest. Tel.: 664 146 904

Bertako neska eskaintzen da goiz zein arratsaldez umeak eta nagusiak



ERRENTAN HARTU

Abadiño. Garajea alokatu nahi dut Muntzaratz inguruan.
Tel.: 691 731 075

IRAKASKUNTZA

EMAN

Injeneru informatikoa Batxilergo eta DBH klaseak emateko prest. Euskara eta ingeles maila ona.
Tel.: 685 752 398 (Jon)

Magisteritza ikasitako neska euskalduna klase partikularrek emateko prest. Esperientzia daukat.
Tel.: 615 735 385

4. mailako Telekomunikazio Ingenieritzako ikasle euskalduna Batxilergo eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Tel.: 635 746 176

Neska euskalduna arratsaldez klase partikularrek emateko prest. Ingeles maila ona. Tel.: 615 708 238

HARTU

Bakarkako ingeles klase partikularrek jaso nahi ditut. Tel.: 690 776 431

ANIMALIAK

SALGAI

Kanario horiak saltzen ditut.
Tel.: 689 586 054

Astakumeak salgai. Tel.: 676 107 469

BESTEAK

SALGAI

Play Station 3 salgai. 80 GB. la erabili barik. Jokoak eta mandoak oparitzen ditut. 225 euro.
Tel.: 606 307 439

Berriz. Etxeko gela bi (altzariak) saltzen ditut.
Tel.: 696 325 811

Mendi bizikletarako balaztak salgai. Formula 24k. Hidraulikoak. Estreinatua gabe. Adaptadoreak prezio barruan. 250 euro. Tel.: 675 008 804 (Harkaitz)

Berogailu elektrikoa salgai. 30 litrokoa. Berria da, erabili gabekoa.
Tel.: 699 295 914

Arko izozkailua salgai. Ignis ICF 271. Berria da, erabili gabekoa.
Tel.: 699 295 914

Etxeko kanpaia salgai. Isla estilokoa. la-ia barria da. Pando markakoa. Altzairu herdoilgaitzekoa.
Tel.: 94 622 56 73

Karreratako bizikleta eta ziklo kroseko bizikleta salgai.
Tel.: 648 260 880 (Maite)

Erabilitako CDak salgai. 400 inguru dira. Txollo ona da, benetan
Tel.: 606 266 244

Bizikleta koadroa salgai. Berria da, Goka Knife modeloa.
Tel.: 686 651 382

Neopreno laburra salgai. Madmess Titanium. Berria da, erabili gabekoa. Etiketekin. Beltza eta gris iluna. Neurria "S"~155cm.
Tel.: 658 738 734

EROSI

Bikiak paseatzeko aukitoxa erosi gura dut.
Tel.: 650 573 607

BEREZIAK

Afrikan trentzak eta beste hainbat orrazkera egiten ditut.
Tel.: 676 009 302. Dikson.

INMOBILIARIAK

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 - bajo - Tel. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

ETXEBIZITZA BERRIAK

- Andra-Mari: Apartamento berriak salgai.
- Zaldibar: Eraikitzen dauden etxebizitzak salgai.
- Abadiño: Txalet bifamiliarra lur eremuarekin salgai.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin salgai.
- Atxondo: Baserria salgai.
- Erretentxu: Salgai. Adosatua eraikitzen.
- Otxandion: Adosatua. Eraikuntza berriak.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Anbroso Meabe: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Ganbara.
- Andra Mari: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 4 logela, 2 komun, egongelatxo. (135 m2).
- Antso Eztegi: Halla, egongela, sukaldea, 4 logela, komuna, bainugela, balkoia eta ganbara.
- Aramotz: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela, komuna eta balkoia.
- Arriluzea: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna. Balkoia eta atikoa.
- Artzetagan: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna.
- Astarloa: Halla, egongela, sukaldea, 4 logela eta komuna. Terraza.
- Barrenkale: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna.
- Montebeide: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 5 logela eta 3 komun. Terraza eta ganbara. (150 m2)
- Elorrio: Halla, sukaldea, balkoia, 3 logela, egongela eta komuna. Trasteleku eta garajea.
- Ermodo: Halla, egongela, sukalde-jantokia, 2 logela, 2 komun.
- Ezkurdi: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun.
- Juan Antonio Abasolo: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna. Balkoia.
- Gasteiz bidean: Halla, egongela, 3 logela, sukaldea eta komuna. Despentsa eta balkoia. Garajea aukeran.
- Goienkalen: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, komuna eta ganbara.
- Iparragirre: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela, 2 komun eta terraza. 2 kobxerentzako garajea eta trasteleku.
- Juan de Itziar: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.
- Kalebarria: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Kalebarria: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. (Guztiz barriztuta).
- Kirikiño: Halla, 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.
- Komentu kalean: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Guztiz barriztuta eta erdi jantzia).
- Laubideta: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
- Mikeldi: Halla, egongela, sukaldea, logela eta balkoia.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO
Tel./Faxa:94 681 66 66 inmoduranguesado@gmail.com
www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra garajea eta trastelekuarekin 200.000+BEZ
- 2 logela garajea eta trastelekuarekin 233.000+BEZ
- 3 logela garajea eta trastelekuarekin 350.000+BEZ
- Tabira: Luxuxko etxebizitza berrien promozioa. Ganbararekin.
- Ezkurdi: 130 m2. 4 logela. Garajea. Handia. Orientazio ona.
- Askatasun Etorbidea: 123 m2. 4 logela. Garajea, trasteleku eta ganbara. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Fray Juan de Zumarraga: 108 m2. 4 logela. Altuera ona.
- Murueta Torre: 120 m2. 4 logela. Garajea eta trasteleku. Balkoia.
- Juan de Itziar: 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan.
- Herriko Gudarien kalea: 105 m2. 3 logela. Garaje itxia. 42 m2-ko terraza.
- Askatasun Etorbidea: Erdi berria. 92 m2. 3 logela. Garajea eta trasteleku.
- Ermodo: Erdi berria. 90 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Balkoia.
- Zabale: 90 m2. 3 logela. Garajea eta trasteleku. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Murueta Torre (V. Bizkaia): 88 m2. 3 logela. Garajea eta trasteleku.
- San Ignazio: 104 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Pagasarri kalea: 94 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Iparragirre: 80 m2. 3 logela. Guztiz berriztatua. Altuera ona.
- Astarloa: 75 m2. 3 logela. Berriztatua. Igogailuarekin.
- Aramotz: 70 m2. 3 logela. Berriztatua. Bizitzen sartzeko moduan.
- Laubideta: 70 m2. 2 logela. Garaje itxia. Beheko solairua lur sailarekin.
- Oñiturri – Astatasun Etorbidea: Erdi berria. 2 logela. Ganbara.
- Asbiki: 74 m2. 2 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta ganbara. Balkoi handia.
- Landako etorbidea: 80 m2. 2 logela. Garajea eta ganbara. Balkoia.
- Zeharkalea: 68 m2. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna.
- Murueta Torre (V. Bizkaia): Erdi berria. 2 logela. Garajea eta ganbara.
- Mikeldi: 50 m2. Logela bakarra. Garajea eta ganbara. Erdi berria.

ZALDIBAR: Lursaila. Eraikitzeko aukerarekin.
BERRIZ, ZALDIBAR, ELORRIO, ABADIÑO: Etxebizitzak salgai. 2 eta 3 logela.

ETXETXO G. INMOBILIARIA
Fray Juan de Zumarraga, 4. inmodurango@gmail.com
Tel.: 94 681 40 40 DURANGO

ETXEBIZITZA SALGAI

- Durango: 2 logela. 156.300 .
- Plateruen Plaza: Atikoa. Estreintzeko. 2 logela. Terraza handia. Garajea.
- Durango: Estreintzeko. Logela bakarra. Sukaldea jantzita. 192.000 .
- Tronperri: 115 m2. Hidromasaje-bainuontzia. Gustatuko zaizu.
- Ermodo: 100 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi berria. Bizitzen sartzeko moduan.
- Pinondon: Duplexa. 126 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Ikuspegi ikusgarriak.
- Montevideo: (Jesuitas). Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- Murueta Torre: Azkeneko solairua terrazarekin. 3 logela. Garajea eta trasteleku.
- Mendizabal: 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea.
- J. Olazaran kalean: 3 logela eta 2 komun. Garaje itxia.
- Tabira: 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua.
- San Ignazio: 3 logela eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Terraza. Garajea aukeran.
- Antso Eztegi: 3 logela, komuna eta egongela. Terraza. Eguzkitsua.
- Ezkurdi: 150 m2. 4 logela, 2 komun eta egongela. Terraza. Aire girotua. Garajea.
- Ezkurdi: 70 m2. 1.go solairua.
- Mikeldi: 4 logela eta 2 komun. Ganbara.
- Sasikoa: 2 logela. Erdi berria. Ganbara. Garaje itxia.

ELORRIO

- Estreintzeko. 336.000 .

IURRETA

- Bidebarrietan: 3 logela. Igogailua. Terraza handia.
- Maspe kalean: 3 logela eta egongela. Igogailua. Berogailua eta terraza. 200.000 .
- Zubiaurre: 3 logela. Guztiz jantzia. 210.000 .
- Dantzari kalean: 2 logela. Aukeran. 190.550 .

ABADIÑO

- A.Baesclin: 3 logela. 192.000 .
- San Trokaz: Logela bakarra. Erdi jantzia.
- Iturritxu: Berria. 2 logela eta 2 komun. 2 Terraza. Ganbara eta trasteleku. Garajea.
- Matiena: 3 logela. 180.000 .

ZALDIBAR / BERRIZ

- Zaldibar: Berriztatua. Eguzkitsua. 3 logela, egongela eta sukaldea. 201.188 . (33,5 mill.).
- Zaldibar: Zalduasolo. 90 m2. 3 logela, 2 komun eta egongela. Terrazak. Garajea aukeran.
- Berriz: 2 logela. Berriztatua. 154.500 .

PABILIOIAK SALGAI

- Fray Juan de Zumarraga: 40 m2. 5 m2-ko erakusleihoa.
- Madalena: (Landako) 80 m2. Instalazio guztiekin.
- Iurreta: 109 m2. Alokairuan.
- Iurreta: 255 m2. 1.380 . Instalazio guztiekin.
- Landako: 60 m2. Guztiz egokitua. 650 .

Amboto
San Agustínale, 4 - 1 Esk. DURANGO
TE: 94 681 35 62 email: amboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZA SALGAI

DURANGO

- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak eta sukaldea jantzita. 172.000 -tik hasita. Lehen mailako materialak. %100eko finantzaketa.
- Apartamento berriak eraikitzen. 700 hilero.
- Askatasun Etorbidea: Eraiki berriak. 2, 3 eta logela bakarrekokoak.
- Murueta Torre: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara, trasteleku eta garajea. Prezio interesgarria.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Durango: Eraiki berria. 2 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta garaje itxia. Lehen mailako materialak.
- Tabira: Eraikuntza berria. Logela bakarrekoko apartamentua. Sukalde jantokia, komuna eta eskegitokia.
- San Inazio Auzunea: Berriztatua berria. 3 logela, (logela printzipala komuna eta jantzigelarekin), 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Aire girotua. Ganbara eta garajea.
- Pedro Pablo Astarloa: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea.
- Barrenkale: AZKENEKO DUPLEXA. Eraiki berriak.
- Herriko Gudarien kalea: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza eta garaje itxia.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, eta komuna. Ganbara.

IURRETA

- 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.

MATIENA-ABADIÑO

- Txinurrisol: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea balkoiarekin. Ganbara, garajea eta trasteleku. Etxe osoak kanpora ematen du.

JAKA

- Apartamentua. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garajea eta trasteleku. Estreintzeko.

ATXONDO

- 2 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Garajea. Berria estreintzeko. Prezio interesgarria.

TXALETAK SALGAI ABADIÑO

- Mendiola. Bifamiliarra. Eraiki berria. Estreintzeko. Informazio pertsonalizatua.

DENPORAPASAK >

HITZ GEZIDUNAK >

	Mendexako auzoa	Kasik	Biltzar
	Izotzak, jelak	Gipuzkoa-ko herria	
Patologiari dagokio	Apika, beharbada	Kontsonantea	Hizkuntza bat daki
* Irudiko altzaria	Harareko		
...gabe, atertu gabe	Ezin aipa daiteke	Galdetzaile bat	Emakume izena
Foruen aldeko		Trapua	
Lanerako tresna	Ezin aipa daiteke	Errep., gorotza	Oinarritzko edari
Leku horretan			
Zeberiko auzoa	Tunisiako hiria	Koreakoa	
Lehen sagardo			

SUDOKU >

1

	9			6	4	3	
7		3	2	1			
					5	9	7
		1	9	8			
9	3				2	6	5
		6					4
	6		1				8
1	2	7		9			4
	8		5	2	3		
							6

2

			7			2	5
	8			5	2		4
	7						9
6						9	3
5				7		1	2
	1	9		8			6
			3		1		
						4	2
8		1	6				9

HOROSKOPOA >

Aries
 marxoak 21 - apirilak 20
 Atxakiak. Ez zuritu zure burua arazoirik ez daukazuean. Egia esanda, ingurukoek gehiago estimatuko zaitue.

Taurus
 apirilak 21 - maiatzak 20
 Mukiak badaukazue be, ez sartu hatzamarra sudurzuloan jendarean! Oraindino umea zara ala?

Gemini
 maiatzak 21 - ekainak 20
 Egunerokotasunak aldeko zein kontrako faktoreak dakar. Aste honetan saiatu zaituz laneko zurrumbilatik irtetzen.

Cancer
 ekainak 21 - uztailak 20
 Jarraitu horrelako txisteak kontatzen, eta lagun pilo egingo dozu. Hori bai, larregi be ez zaituz pasatu, badaezpada...

Leo
 uztailak 21 - abuztuak 23
 Zure logelan streaptisea egingo dozun hurrengo aldirian, pertsianak jaitsi egizuz, gitxienez. Bista itzela daukagu...

Virgo
 abuztuak 24 - irailak 23
 Norberak egindako akatsak norberak konpondu behar ditu. Ez itxaron inori babak lapikotik ateratzeko.

Libra
 irailak 24 - urriak 23
 Ezagun harez ez zintuen agurtu aurrekoan. Despistatua izango da, ala despistatu plantak egingo zintuen?

Scorpius
 urriak 24 - azaroak 23
 Bada barruko kamiseta ipintzeko sasoi. Aukeratu egizuz luzeak direnak, bestela, gerri aldetik freskura sartuko jatzu-eta!

Sagittarius
 azaroak 24 - abenduak 23
 Noiz amaituko dozu liburu hori irakurtzen? Hasi bai, baina azken orrialdera ailegatzea kostatzen jatzu. Astindu egiozuz hautsak...


Capricornus
 abenduak 24 - urtarrilak 20
 Ez badozu pertsona horrengan sinesten, ez bazara beragaz fidatzen, zergaitik emoten deusazu beste aukera bat?

Aquarius
 urtarrilak 21 - otsailak 18
 Zeren atzetik zabiliz? Zer daukazu buruan? Zelakoa zaren ikusita, gurago ez jakin! Ez zara galduko, ez, sorgin halakoa!

Piscis
 otsailak 19 - martxoak 20
 Euriak oinetako barriak behar dozuzela gogorazi deustu? Ezin dira gauzak azken momenturako itzi...

ZORION AGURRAK >

agurrak: zorionak@anboto.org-ra
 Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta



Zorionak **Aritz!** Azaroaren 12an 6 urte egin zituen. Poz pozik gagoz, hain alai eta umore onekoa izateagatik. Aita, ama eta Urtziren partez.



Ainhoa **Zubizarreta** azaroaren 14an hamar urte egingo ditu. Zorionak, Gerardo, Mari Tereren eta Uxueren partez.



Zorionak, **Maddi**, azaroaren 18an urte bi egingo dozuz-eta. Kandlei putz egin eta, ñam, pastela jango dogu: "Hau bai ona!"

SOLUZIOAK

A	R	R	V	E	R	O	K
N	A	R	I	A	R	•	
K	•	R	A	T	A	P	
•	A	L	V	Z	E	G	•
U	B	A	T	•	R	O	H
S	E	B	A	N	A	L	•
E	L	V	Z	U	R	O	F
R	E	Z	•	I	A	T	•
G	•	A	V	A	H	V	
N	A	I	A	•	P	•	
O	I	D	A	•			
K	E	I	A				
•	I	•	L	•			



Oier **Amantegik** azaroaren 11n, eguaztenean, 6 urte egin zituen. Zorionak eta mosu handi-handi bat zure familiaren partez.



Zorionak izeko **Itziar!** Ederto pasatu genduen zure merienda. Mosu handi bat, eta urte askotarako. Jauritxikitik, zorionak, Amaiur eta Uxeren partez.

1

9	7	1	3	2	5	6	8	4
3	4	5	8	6	9	7	2	1
6	8	7	4	2	8	9	3	6
2	7	9	2	1	8	5	1	4
5	4	1	9	2	7	3	2	2
7	1	4	8	3	5	9	2	7
6	5	3	3	2	1	9	4	4
8	6	2	7	6	4	4	3	5

2

8	4	1	6	2	9	1	4	8
3	5	8	7	6	8	9	5	3
7	9	2	4	3	7	6	1	5
4	1	2	2	8	3	5	7	6
5	3	8	7	6	8	3	5	5
6	2	7	5	1	4	6	8	3
2	7	5	4	6	8	3	9	1
9	8	3	1	5	2	6	4	7
1	6	4	7	3	9	2	5	8

EUSKO LABEL >

Eusko Labela daukien baserriko oilaskoak haizetara hazitakoak dira



Baserriko oilaskoa, hazkuntza naturala duen animalia da. Oilasko honek, besteak beste, honako eza-

garriak eskaintzen ditue: okela osasuntsua, samurra, zapoetsua eta modu trazionalean hazitako hemengo betiko oilaskoaren gustu osoa.

Eusko Labela daukien baserriko oilaskoak jaio eta, gitxienez, hiru aste igaro ondoren belardira ateratzen dira, aske hazi daitezten.

Oilasko horreen elikadura be asko zaintzen da, eta zereletan oinarritzen da (%60 artoa gitxienez); ez da onartzen, gainera, koipe eta gehigarri artifizialik. Era berean, oilaskoak, gitxienez, 81 egun izan behar ditu hil aurretik. Horretara, kontsumitzailearengana heltzen den okelak berme guztiak eduki daizen kontu handiz zaintzen ditue oilaskoak baserritarrek.

Produktuaren bermeak

Euskadiko baserriko oilaskoaren ezaugarri horreek guztiak bere horretan mantendu daitezten, ahalegin berezia egiten dabilz Lumagorri elkarte eta Kalitatea Fundazioa, Eusko Labela daukan oilaskoa merka-

turatz. Bereizgarri horrek (Eusko Labelak), egiten diren kontrol ugarien bitartez, honako bermeak eskaintzen deusaz kontsumitzaileari: jakiaren ezaugarri guztiak mantentzea, kalitatea, animalien ongizatea eta ingurumena errespetatzen dauen produktio sistema erabiltzea.

Oilasko ekoizleak kalitateko produktua eskaintzeko egiten dabilzen ahalegina kontsumitzaileen aldetik oso erantzun ona dabil jasotzen; horren adierazgarri da Eusko Labela daukan baserriko oilaskoaren erosleak oso leialak direla.

Kontsumitzaileak erosten dauen oilaskoa Eusko Labela daukana dela jakiteko animalien hankari ipini behar deus arreta, hantxe dauka-eta Kalitatearen K daroan kontrol eta identifikaziorako eratzuna.

2008an jasotako datuen arabera, denera, 780.908 kilo Baserriko Oilasko komertzializatu zitueen Eusko Label markapean Luma Gorri ekoizpen elkartean izena emondako 47 ekoizleek.

Errezeta

OSAGAIK

- 1 baserriko oilasko garbi
- 6 baratxuri atal • 1 edalontzi ur
- limoi zuku apur bat • gatza

Labea 200 gradutan ipini. Labeko ontzi batean sakabanutuko doguz baratxuri atalak eta horreen gainean, alboka eta izterretako batean etzanda, oilaskoa. Ura botako deusagu gainetik, labean edukiko dogu 20 minututan. Labea zabaldu eta bere zukuaz bustiko dogu oilaskoa gainetik eta beste izterraren gainean jarriko dogu beste 20 minututan egiten. Berriro egin zukua gainetik eta bularraren gainean erreko dogu 15 minutuz. Noizean behin zukua egiten. Azkenik, bularez gora jarri, limoi-ura egin eta beste 15 minututan bere puntuan edukiko dogu. Erre bitartean oilaskoa lehortzen hasten bada ur gehiago jarriko deusagu, ez da-eta komeni hondoaz hezetasunik barik geratzea.

Behin oilaskoa eginda daukagularik, zilar-paperez estaliko dogu 10 minututan; horretara, oilaskoak daukazen zukuak euren lekura itzuliko dira eta ez jakuz platerean galduko.

On egin!



Eusko Labela daukien oilaskoak hazkuntza naturalekoak dira.

ARDAOAREN NEGARRA "Ozpintzea, ardaoaren gaixotasun famatuena"



Mikel Garaizabal
Enologoa

Ardaoa bizia daukan elikagaia dela esan geinke: jaio, eboluzionatu eta, behin denpora jakin bat emonda, gaixotu eta hil egiten da. Egia da azken urteotan oso aldaketa handiak izan direla ardaoaren munduan. Besteak beste, eta, antzina ez bezala, merkatuan ardao gaixotutako aurkitzea gero eta arraroagoa da. Hau enologoei esker izan da; honek dira, egunez egun ardaoaren kontrolak egiten ditueenak eta gaixotasunak sortzen ditueen agenteak uxatzen ditueenak. Denok ezagutzen dogun gaixotasun famatuena ozpintze prozesua dela esan leike. Ozpintze prozesua bakterio azetikoek eragiten dabe. Bakterio horreek, kopuru txikian, ardao guztietan dagoz; hau dela eta, ardao guztietan izango dogu eurek sortutako azido azetikoak: mahats bilketatik botilaratu arte. Kopuru txikian azido azetikoak ez dogu apreziatuko, baina zenbat eta oxigeno-kontaktu gehiago izan ardaoak, gero eta azido azetiko gehiago sortuko da. Litroko azido azetiko gramo bat baino gehiago izanez gero, ardao hori ozpinduta dagoela esaten da. Adibide legez, guztioi gertatu jaku botila bat ardao zabaldu eta egun batzuetara, berriz be edatera joanda, ezin edan izatea ozpina gogorazten deuskulako.



Eusko Labela: ona den seinale



Goi-mailako elikagaia
Alimentos de calidad superior



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Euskal Okela inguruko harategi hauetan aurkituko duzu:

Abadiño

- PINILLA HARATEGIA
TRAÑABARREN, 29-MATIENA

Zaldibar

- GALLASTEGI HARATEGIA
ZALDUASOLO PLAZA, 9

Otxandio

- GAZTAÑETA HARATEGIA
ARTEKALE, 25

Durango

- GALLASTEGI HARATEGIA
ANTSO ESTEGIZ KALEA, 1

- IÑAKI HARATEGIA
SASIKOA KALEA, 10

- OKA HARATEGIA
ANDRA MARI, 3

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak

Especializatuak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak

hile honetako irabazlea:



Klaudia Loizate
(Abadiño-Matiena)

Kalitatezko euskal produktuekin betetako saski baten zozketan parte hartzeko "Eusko Label" zigilua duen produkturen baten etiketa zure datuekin eta telefonoarekin batera bidali hurrengo helbide honetara:

Erref.: "Eusko Label Saskia"
Anboto Astekaria
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta

Hilero azken astelehenean saski bat zozketatuko dugu hurrengo produktuekin: kilo 1 Arabako Babaruna, pote 1 "Ibarrako Piparrak", pote 1 Ezti, Idiazabal gazta, botella 1 "Bixotako Txakolina", botella 1 "Arabar Erriaxako Ardoa", botila 1 Arabar Erriaxako Olio Birjina, Txakolinazko barboi-kutxa 1 eta 30€ko txartel 1 Euskal Okelaz, Euskal Ezne Beldatuz edo Euskal Baserriko Oilaskoaz trukatzeko.



Pedro Pablo Arrinda
Irakaslea

Harrien sexua

Ba al dakizu zein den harri horren sexua? Halaxe galdetu zion Iñaki Perurena harri-jasotzaile handiari Garabideko truke-programan parte hartzen dabilen Carlos Yamberla boliviarrak.

"Nola? Nola?", galdetu zion Iñakik. "Bai, hor esku artean dituzun 2 harri horietako bat arra da; bestea emea".

"Kontxol!", dio Iñakik. "Nik 16 urterekin harriak neskak baino gehiago maite nituen, eta egia esan lasaitzen nau jakite-ak harrietan emeak ere badaudela! Baina zein da arra eta zein emea?".

Naturan elementu guztiak dute generoa. Mendi batzuk emeak, 'mama' kichweraz dira, eta ondoan arra, 'taita', izaten dute. Zuhaitzek berdin, hosto estu eta luzekoak emeak dira, eta zabalekoak arrak.

Naturan elementu guztiak dute generoa. Zuhaitzak, eta baita mendiak ere, arrak zein emeak izan daitezke

Harriekin ere modu berean gertatzen da. Arinenak emeak dira, eta feminitatearen ezaugarriak dituzte. Iraunkorak dira, gogorrak, gozoak, eta berotasuna gorde eta emateko kapazitatea dute. Harri emeak sutara botaz gero, ez dira apurtzen, berotasuna jaso eta gorde egiten dute. Harri arrak, ordea, latzagoak dira eta erreago hausten dira; sutara botaz gero, berotasunarekin txikitu egingo lirarteke.

"Ba nik pisu handiko harriak nituen gogoko", dio Perurenak, "baina neskazalea naiz e!".

Hango barre eta algarak ikusten denez, oraindik badaukagu zer ikasi "herri atzeratuengandik", ezta?

"Gazteek afizinoa daukie, baina lasterketetan ez dago dirurik"

Auto lasterketetan parte hartzen dauen kotxe politena Lebeiti iurretarrarena dela dinoe

Joan zen asteko zapatuan 'Balcón de Bizkaia' auto lasterketan parte hartu eban Lebeitik. Euri zaparrada eta haize boladei aurre eginez, lasterketa onik amaitzea lortu eban. Zirkuituko beteranoetako bat den arren, ez dauka jubilatzeo asmorik.

Zelan joan zen 'Balcón de Bizkaia' igoera?

Eguraldi oso txarra egin eban. Goizeko bederatzietatik arratsaldeko 20:00ak arte kotxean sartuta egon ginen. Asistentziako karpak eroan zituen haizeak. Kotxea osorik etxera ekartzea ona izan zen. Istripu ugari izan ziren. Parte-hartzaileen erdiek amaitu eban. Jente gitxi egon zen goizean ikusten. Arratsaldean, Elgetara eta Kanpazarrera, jente gehiago hurreratu zen.

Zelan ekin zeun kotxeak gidatzeari?

Zaletasuna beti izan dot. Afizino garestia da, baina. Ezkondu eta gero kotxea erosteko aukera sortu jatan, eta halan hasi nintzen.

Hain garestia da?

Gazteei hau garestia dela esaten deuset. Babesle barik edo piloto ofiziala ez bazara, ezin leiteke. Bestela, ekonomikoki beti galtzen irutzen dozu. Karreretan ez da sari ekonomikorik izaten, izen-emoitea ordaindu beharra dago. Hemengo lasterketetan, sarrera ordaintzen denez, diru hori gidarien artean

banatzen dogu. Baina beste leku batzuetan ez da halan izaten. Federatu beharra dago. Nik bikotxa ordaintzen dot gatzizena jartzearen.

Gatzizena nondik?

Lebeiti gure baserriaren izena da.

Zenbat kotxe izan dozuz?

Gitxi. Honegaz 15 urte daroadaz. Ford Scord bat izan neban hiru urtez, eta hasi nintzenean Simca bat neukan.

Kotxe politena dela dinoezaleek.

Ezkurdin gauean aparkatu genduenan, gehienak kotxea ikustera etorri ziren. Kotxe hau eza-

gutu ez daben gazte asko dago. Orain ikusten dabe Carlos Sainzek bere denporan halakoxea eduki eba.

Orain kaleko kotxeak lasterketarako prestatzen ditue. Kotxe hau karrerarako bakarrik irten zen. Motorra atzean dauka; R5 bat da.

Espainia guztian lasterketetan hiru dabilz. Besteak gorde ditue, kalean ibiltzeko.

Kotxe preziatua da orduan.

kotxe honek, denporagaz, galdu beharrean irabazi egiten dau. Jenteak dinost karreretatik atera eta gorde beharko dodala, baina beste kotxe bat erosterik ez dot gura.

Proba onenak?

Urkiolakoa eta 'Balcón de Bizkaia'. Durangaldean izaten direlako, eta gainera ondo antolatuta egoten direlako.

Zelan entrenatzen zara?

Lasterketaren aurreko asteburuan kotxean entrenatzeko baimena izaten dogu; baina kaleko kotxeagaz eta astiro, ibilbidearen oharrak jasotzeko.

Nor dozu kotxeiko bikote?

Jon Urutikoetxeagaz 17 urtean ibili nintzen, baina itzi egin eban. Orain Argoitz Irzio zaldibartarragaz nabil. Lasterketetan ondo konpontzen gara.

Bidean be arin ibiltzen zara?

Probakizaten doguzenez arin ibiltzeko, normal noanean astiro joaten naz. Ni baino arinago joaten da emaztea.

Zaletasuna zelan ikusten dozuz?

Afizino handia dago, baina ez dago dirurik, eta kotxe txarrekin ezin da. Nik kentzen ditudan gurpilak erosten deustez euren autoei jartzeko. Ikusleen aldetik be zaletasun handia dago. 'Balcón de Bizkaia'-n egin eban eguraldiagaz, afizino handia izan behar da ikustera joateko. Urkiola jentez gainezka zegoen.

Garaipenik gogoangarriena?

Garaipen denak dira gogoratze-koak, baina, bereziki, aurten Urkiolakoa eta 1997an Euskal Herriko Txapelketa Urrakin, etxeko bati irabazi neutsanean.



Jose Ignacio Erdoiza

Lebeiti •

Auto-gidaria

53 urte



Bialdu zure oporraldiko argazkiak eta EROSKI BIDAIAKEN eskutik 'Villa de Llanes' hotelean, asteburu bateko egonaldiko zozketan parte hartu!

astekaria@anboto.org

